




ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



Berako Maratoi Erdia
apirilaren 13an

→ 45

2014ko apirilaren 3a | XXXIV. urtea | 611. zenbakia

Bertsoak → 21
Bardoak finala apirilaren
12an Lesakan eginen da

IGANTZI → 15
Kirol Jokoen finala
apirilaren 13an izanen da

SUNBILLA → 28
Eskola ttikien topaketa
apirilaren 15ean eginen da

LEITZA → 34
Atekabeltz Herrigunearen
pesta hainbat ekitaldirekin

ZUGARRAMURDI → 39
Titiriteroen topaketa
eginen da asteburuan



ARGAZKIA: ASPE

Kontrakantxako aulkitik begira

ERREPORTAJEA → 4-5

Botileroen bizipenak biltzeko asmoz, hiru pilotari haundiren botileroengana jo du TTIPI-TTAPAK: Asier Olaizola (Olaizola II.aren botileroa), Asier Gartzia (Bengoetxea VI.aren botileroa) eta Mololo Irigoienekin (Barriolaren botileroa) solastu gara.



Jon ABRIL | Berako zinegotzia

«Herritarrei bere bizipenak, sentimenduak eta ikuspegiak agertzeko tokia eskaini nahi diegu»

Herri mailan ere bakerantz urratsak emateko garaia dela iritzita, Bake eta Elkarbizitza Plana paratu du martxan Berako Udalak.

Herritarrei oinarritzko trebakuntza ikastaroak eskaintzeaz gain, ikastetxeekin lanean hasi nahi dute eta foro partehartzailea osatu.

ELKARRIZKETA → 3

BOZEN EMAITZAK → 40

Azkaine, Sara eta Senpereko datuak

Herriko kontseilu eta herri edo hiri elkargoetako ordezkariak hautatzeko bozak izan dira Ipar Euskal Herrian. Azkaine, Sara eta Senpereko datuak bildu ditu TTIPI-TTAPAK.

ZOZKETAK → 52



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

DENOK DAKIZKIGUNAK

lactuGOGOETA

"Bertako produktuak erosita, hemengoentzat lana lortzen dugula jakin badakit"

"Horregatik esnea erosterakoan Lacturale aukeratzen dut, Nafar abeltzainen esnea"

MÓNICA PAREDES (IRUÑEA)

www.lacturale.com

Nafarroako Ekoizpen Integratuan
Ziurtatutako Esnea
Kategoria Gorena

Lacturalen dione esagutu dezakegu. Ez dugu eta esagutu gaitzazu. Aldaz aurreko datu: 948 600 449

berako agenda

.net

Twitter Facebook

★Apirila★

Berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net

BERAKOUDALA Berako kultur batzordea

2 ASTEAZKENA	UDABERRIKO KONTZERTUA: 18:30 Kultur Etxean	26 LARUNBATA	BERA KANTARI: 19:00 Illeketako zubian	30 ASTEAZKENA	LIBURUAREN EGUNeko OSPAKIZUNA: Haurrentzako ipuin kontalaria (Eneko Haritza) 18:00 · Ondotik Orri-markako lehiaketako sari banaketa
6 IGANDEA	ANTZERKIA: "Esperando a la inglesa" (Emitza Antzerki taldea) 18:30 · Kultur Etxean	Berako Mendi Maratoi Erdia X. urteurrena		Hip Hop Ikastaroa	
7 ASTELEHENA	BERAKO BESTETAKO BILERA IREKIA: 18:30 · Beralandetan	12 LARUNBATA	13:30 Abiadura eskalada txapelketaren kanporaketa. Izena emateko: manttaletaldea@gmail.com Arratsaldean · Puzgarriak Toki Onako patioan 18:00 · Herri kirolak Toki Onako patioan: Herri kirolen erakustaldia Herri kirolen desafioa Berako Herri Kirol Taldea vs. Manttale 19:00 · Abiadura eskalada txapelketaren finala	22 23 24 25	Bi talde: LH: 9:00-11:30 DBH: 11:30-13:00 Sarrera: 6€ Izen-ematea: 012 telefonoan Izena emateko epea: apirilak 10 (azken eguna)
8 ASTEARTEA	KONTZERTUA: Irungo musika eskolako soka orkestra 18:30 · Kultur Etxean	13 IGANDEA	9:30 · Irteera Rikardo Baroja eskolatik maratoi erdia ikusteko mendi irteerak Argibideak: www.manttale.com	15 etik MAIATZAREN 4 ra ASTEARTETIK IGANDERA	ERAKUSKETA: "Lagun askeak" (Txo taldea): eskulturak, pintura... Orduetgia: 10:00-12:00 eta 16:00-19:00 (Igande arratsaldez itxia) Berako Kultur Etxean Inaugurazioa: Apirilak 11, ortzirala 19:00
25 ORTZIRALA	BERTSO-SAIOA (San Jose Zahar etxeko kultur astearen barruan) 17:00 · San Jose Zahar Etxea Bertsolariak: Iban Garro, Eneko Fernandez, Ior Tainta eta Manu Goiogana Gai-jartzailea: Julen Zelaieta				

Euskal Herriko panorama politikoan emandako aldaketan ondotik, herri mailan ere «bakerantz urratsak emateko garaia» dela irizita, Bake eta Elkarbizitza Sustatzeko

plana jarri du abian Berako Udalak. Nafarroan halako ekimena martxan paratu duen lehendabiziko udala da. Baketik erakundearekin harremanetan jarri eta hasi

dira lanean, herritarrei oinarritzko trebakuntza ikastaroak eskainiz. Ikastetxeetan eman nahiko lituzkete ondorengo pausoak eta foro parte hartzaile bat osatu ere bai.

Jon ABRIL | Berako Udaleko zinegotzia

«Zauriak sendatu eta aitzinera begira jartzeko urratsak behar dira»

E. IRAOLA

Zergatik jarri duzue plan hau abian?

Zenbait instituzio, alderdi politiko eta eragile sozial bakerantz urratsak ematen ari direla ikusita, herri mailan ere landu behar zen gaia zela erabaki genuen. Gatazkaren adierazpiderik gordinenak herri gisara ere zeresana eta zeregina badugu. Elkarbizitza berriz ere jorratu, zauriak sendatu eta aitzinera begira paratzeko beharrezko ahalegina da. Gainera, Nafarroako Gobernuak bide haultzako inolako interesik ez duela ikustekak, gure ekarpenari garrantzia gehiago ematen dio.

Zein pauso eman dituzue orain artean?

Baketikekin harremanetan paratu ginen aholkularitza jasotzeko, Gipuzkoan gisako esperientziak lantzen ari da taldea eta beraien ekarpena baliagarria izan zitekeela uste genuen. Gatazka eta berradiskidetze prozesu bat zer den ezagutzeko oinarritzko ikastarotxo bat egin genuen zinegotziek eta ondotik, hori bera da herritarrei eskaini dieguna. Ikastetxeekin ere landu nahi dugu gaia eta dagoeneko harremanetan paratu gara. Herritarrei begira berriz, oinarritzko formakuntza honen ondotik, foro bat sortzea da gure asmoa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jon Abril, Berako Udaleko Zinegotzia.

Herritar orori bere bizi-penak, sentimenduak eta ikuspegiak agertzeko toki bat eskaini nahi diegu. Errespetuzko jarrerarekin, modu erakitzaile batean lan egin nahi da. Herrian izan diren eta diren sentsibiltate, ikuspegi eta min desberdinak jasoz, aitzinera begira herri bezala ere zer landu behar dugun ikustea da asmoa. Hortik aitzinera urratsak pixkanaka ematen joanen gara. Bertze lan ildo bat ere badugu: sentsibilizazioa. Publiko zabal batengana ailegatzeko moduak lantzen ari gara, prozesua ahalik eta emankorrena izan dadin.

PROZESUAREN ERRITMOA
Sufrimendu bakoitza partikularra da, hori da abiapuntua. Ezin dira egoerak bortxatu. Aukerak eta bideak irekitzea da helburua. Bakoitzak bere erritmoak beharko ditu, bere denbora hartuko du, bere hausnarketa izanen du. Batzuentzat errazagoa izanen da sufrimendu horretaz solastea, bertzeengana hurbiltzea... egoera bakoitzaren arabera ere moldatzen joan beharko dugu.

Zein da muga zailena?

Gaiak berak duen zama. Ezin da arinkeriaz landu oraindik sufrimendu aunitz dagoelako. Elkarbizitza eta bakerako oinarriak eraikitzeke daude. Presoen egoera begi bistakoa da eta baita horrek gizartean sortzen duen sufrimendua ere. Gure herrietan bertan ere izan dira ETA-ren indarkeria pairatu duten herritarrak. Denengana hurbiltzeko ahalegina egin behar dugu. Elkarbizitza hobetzen bada, herri hobe batean biziko baikara.

Zein izan da oraingoz parte hartzea?

Horixe da dugun erronkarik handiena eta nor-

malean hasieretan gehien kostatzen dena, sinisgarritasun hori lortzea da. Aitortu behar dugu oraindik ez dugula lortu sentsibiltate guztietako jendea erakartzea. Akaso, ez da erraza izanen, sentsibiltate jakin batzuetakoak hurbiltzea foro ireki batzuetara. Zenbait jende agian ez dago presatua urteetan areriotzat jo duen horren ondoan esertzeko. Baina, azpimarratu nahi nuke, antolatzen diren ekimen guztien izaera zabala eta anitza izatea nahi dugula eta bide horretan lanean segiko dugula. Zenbat eta ikuspegi gehiago jaso, aberasgarriagoa eta hobea izanen dela konbentzitu gaudu. Dena den, horrek ez du erran nahi sentsibiltate jakin batekoek parte ez hartzea erabakitzen badute prozesua bertan behera geldituko denik. Hasia dagoen bidea da eta ez genuke batzuen ezezkioak oztopo izatea nahi.

Non hasten da aldatzeko bidea?

Norberak hasteko bere etxe barrenean landu behar du gaia. Denok dugu zer berrikusia eta autokritika egitea beharrezkoa da. Denok ez maila berean. Guk konpromiso soziala, konpromiso pertsonaletik abiarazten dela azpimarratzen dugu.

KIROLA → BOTILEROEKIN SOLASEAN

Botileroak, pilotarien itzalean dauden ezinbertzeko osagai

ARGAZKIA: ASPE

Kontrakantxako aulkitik zer dioten bildu dugu

Partidetan pilotariari momentuko jokoa hobetzen laguntzeko aholkuak ematea izaten da botileroen lana eta pilotaria urduri baldin badago lasaitzen saiatzea. Entrenamenduetan eta pilota aukeraketetan ere



maiz pilotarien ondoan daude, euren ekarpena egiteko prest. TTIPI-TTAPA Asier Olaizola, Asier Gartzia eta Mololo Irigoienekin solastu da.

G. PIKABEA

Aholkuemaile soilak baino gehiago dira. Anaiak edo lehengusuak izan daitezke, baina baita lagunak ere, pilotarien konfidantzazko lagunak. Partidan ikusle ere badiara, baina ikusle zorrotz,

kontrakantxako eserlekuan jarrita erne eta urduritasun puntuarekin ikusten baitituzte euren pilotarien partidak. Horiexek dira botileroak.

Partidetan aholkuak ematen dizkiete pilotariari, maiz psikologo lana

eginez. Kasu batzuetan entrenamenduetara ere laguntzen diete edo pilota aukeraketetan ere eskua botatzen diete, pilotariak berak zer nahi duen ongi dakien arren lau begik bik baino gehiago ikusten dutelako.



Botileroen lana zein den ezagutu nahi izan dugu, euren bizipenak bildu. Eta horretarako jo dugu Asier Olaizola goizuetarrarengana, Asier Gartzia leitzarrarengana eta Mololo Irigoien lesakarrarengana. Hiru pilotari haundiren botileroak dira, Asier Olaizola bere anaia Aimarren botileroa da, Asier Gartzia Oinatz Bengoetxea bere



lehengusuen botileroa eta Mololo Irigoien Abel

Barriola bere lagunaren botileroa. Pilotariak hala nahi badute, euren ondoan segitu nahiko lukeela diote, borondate osoz, kontent daudelako eta gustuko dutela egiten duten lana.

Asier OLAIZOLA | Aimar OLAIZOLAREN BOTILEROA

«Zuriz dagoenak egin behar ditu gauzak eta botileroak kanpotik gutxi egin dezake»

Frontoiko kantxa eta kontrakantxako aulkia. Biak ere ederki ezagutzen ditu Asier Olaizola 38 urteko goizuetarrak. Ia 18 urte eman ditu profesionaletan, onenen artean jokatzeko, bere eskuin kolpe ikusgarria erakutsiz eta binaka bi txapel ere lortu ditu. Joan den abenduaren 31n, ordea, kontratua bukatu zitzaion. «Pena» sentitu zuela esan digun arren, «urte asko neramatzan eta onartua nuen. Uste baino hobeki nago». Bizitza ez zaiola asko aldatu azaldu digu, «egunero kirola egiten segitzen dut». Dena den, pilota kolpetik uzteak pena ematen zionez, udan partida batzuk jokatu ditu Garferekin.

Tarte horretan, ordea, ez dugu pilotalekueetatik urruti ikusiko, Aimar anaiaren botilero izaten segituko baitu, nahiz eta aitortu duen «zuriz jantzita gutxiago sufritzen dela». Anaiak profesionaletarako saltoa egin zuenetik bere botileroa da Asier eta bere hitzetan, «anaiak erabakitzen duen arte berekin segituko dut».

Botileroaren lana «gehienbat pilotaria lasaitzea» izaten omen da: «jokatzen ari dena askotan ez da konturatzen urduri dagoela, eta kanpotik detaile horiek ikustea garrantzitsua da». Jokoa daudenean, «partidatik ez ateratzeko» aholkatzen dio anaiari, «galtzen edo irabazten joan, garrantzitsuena kontzentrazioa mantentzea da, kontzentrazioa galduz gero, partidak buelta eman dezakeelako». Entrenamenduetan ere laguntzen dio anaia gazteari: «askotan elkarrekin entrenatzen dugu». Eta pilota aukeraketetara ere berekin joaten da, baina Aimarrek berak aukeratzeko omen ditu pilotak: «pilotariak erabaki behar duen gauza bat da, eta nik ez diot pilota bat edo bestea hartzeko esaten».

ANAIARI BURUZ

«Aimar konjuntio bat da. Dohain asko oso onak dauzka eta horrekin ikaragarritzko maila ematen du».



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Asierren irudiko, «zuriz dagoenak egin behar ditu gauzak eta botileroak kanpotik gutxi egin dezake, momentu jakin batzuetan laguntzen saiatu baino ez». Lan egiteko ez duela «inongo metodorik» kontatu digu: «botilero ona izanena naiz anaiarekin joaten naizelako». Eta bere lanetik gogorrena «anaiak momentu zailak eduki ditunean sentitzen den inpotentzia hori da. Galtzen ari denean, kanpotik lagundu nahi, eta askotan ezin izaten da».

Pilotari haundia da Aimar, eta bere anaiak ere «oso ongi» ikusten du. «Potenzial haundiko mutila da, berezko fisiko ikaragarria duena eta mentalki gogorra. Kirolari guztiek bezala, bere gora-beherak izan arren, partida jokatzean argi eta garbi edukitzen du zer egin behar duen». Izaeraz, aldiz, «nahiko lotsatia» dela dio Asierrek: «jendeak uste baino gehiago». Baina kirolari bezala, ez dago zalantzarik, puntako pilotaria da. Eta Asier bera ere iritzi berekoa da, harro mintzo baita anaiak: «konjuntio bat da. Dohain asko oso onak dauzka eta horrekin ikaragarritzko maila ematen du».

Asier GARTZIA | Oinatz BENGOTXEAREN BOTILEROA

«Oso gustura egiten dudan lan bat da eta berekin momentu horiek konpartitzea luxu bat da»

Oinatz Bengoetxeak profesionaletan debutatu zuen arte, berekin ibili zen pilotan Asier Gartzia 34 urteko leitzarra. Bengoetxea VI.aren lehengusua ere bada, eta 2008tik bere botileroa. «Elkarrekin konfiantza handia daukagu eta gauzak argi esaten dizkiogu elkarri». Bere hitzetan horixe da Leitzako aurrelariak beregan bilatzen duena. Botilero den aldetik bere lana «hasteko pilotaria bere tenplean partidara ateratzea eta berea egiteko zentratua ateratzea» dela azaldu digu, eta partidan zehar «pilotariak ikusten ez dituen gauzak detektatu eta adieraztea». Askotan errepikatzen omen dio Oinatz «berea egitera ateratzeaz arduratzeko».

Lehengusuarekin ahalik eta denbora gehien egotea gustatzen zaio: «entrenamendu guztietara joaten naiz, txapelketa hasi aurretik eta txapelketan zehar. Pilota aukeraketan ere berekin egoten naiz». Botilero guztiek bezala, berak ere bere lan egiteko modua du: «txapelketa hasi baino lehen prestakuntzarako izaten dugun denboran, jokatzeo baliabide onak lehenbailehen martxan jartzen saiatzen gara eta oso ongi egiten ez ditugun gauzetan enfasi gehiago jartzen, partida ailegatzean konpletoago egoteko». Partida garrantzitsuren bat datorrenean ere, «aurkariak zein lan egiten duen ikusi arren, gehienbat gure jokoan zentratzen gara». Izan ere, ez baitira samurak izaten norgehiagoka garrantzitsu baten atariko egunak. Gartzia dioenez, «eromena» izaten da: «hor

LEHENGUSUAREN JOKOA

«Oinatzek joko erasokorra, mugitua eta alaia egiten du. Hori bere izaera ere halakoa delako da»



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

zaudelako seinale ona da, baina komunikabideetan elkarrizketa asko eman behar dira eta partidaren tentsioa ere nabaritzen da».

Bengoetxeak jokatzen ari denean duen «alaitasuna» nabarmendu digu Gartzia. Eta gaineratu digunez, «oso mutil gogorra eta zentratua da. Frontoian partida oro bere izaera erakusten du». Pilotari gehien izaera frontoian ikusten dela pentsatzen du: «Oinatzek joko erasokorra, mugitua eta alaia egiten du. Hori bere izaera ere halakoa delako da. Horrelako pertsona da».

Kontatu digunez, «Oinatz ezinean edo aurkaria gainentzen ari dela eta bera oso momentu txarra pasatzen ari dela ikustea, oso gogorra da». Gainontzean, ordea, «elkarrekin daukagun harremanarekin gauza gogorrik ez dagoela» dio. «Oso gustura egiten dudan lan bat da eta berekin momentu horiek konpartitzea luxu bat da».

Mololo IRIGOIEN | Abel BARRIOLAREN BOTILEROA

«Pilotaz pixka bat jakitea eta konfiantza izatea bilatzen dute pilotariek botileroengan»

Afizionatuen mailan munduko txapeldun izana da Mololo Irigoien. Orain, ordea, pilotako galtza zuriak utziak ditu eta botilero lanetan dabil 38 urteko lesakarra, Abel Barriola leitzararen botilero lanetan. Mikel Gofioren botileroa ere izan zen urte pare batez, baina azken bizpahiru urteotan Barriolaren ondoan ari da, eta erran digunez, «gustura». Bere ustez, «pilotaz pixka bat jakitea eta konfiantza izatea» bilatzen dute pilotariek botileroengan eta bere kasuan, leitzarra laguna du: «orain ez naiz aunitzik egoten, baina Abelekin ordu aunitz pasatua naiz», aipatu digu.

Partida aitzinetik «partida prestatzea, aurkaria pixka bat ezagutu eta zein akats izaten ahal dituen ikustea» izaten da bere lana. Entrenamenduetan ere noizean behin laguntzen dio, nahiz eta ez lehen adina: «lehen Iruñera joaten nintzen eta elkarrekin entrenatzen genuen. Asteaz hiru aldiz egoten ginen, baina orain hainbertze ez». Partida jokoan dagoenean, berriz, «partida mila modutara hasi eta bukatzen ahal da eta tarte horretan ea zer pasatzen den ikusi behar dugu». Lesakarrak garbi du «botileroak deus gutti egiten ahal duela pilotariari laguntzeko. Pixka bat lasaitu, animoak eman...». Eta horixe da, hain zuzen, behin eta berriz ematen dion aholkua: «lasai egoteko, berak dakiena emateko». Dena den, onartu du «hori zaila dela, partidetan tentsio handia izaten delako eta buruz burukoetan oraindik gehiago».

ABELEN INDARRA

«Kirolari aunitz ezagutu ditut baina Abel bezalakorik inor ere ez. Beti lanerako eta hobetzeko prest dago»



UTZITAKO ARGAZKIA

Zenbaitetan gaizki pasatzen duela ere aitortu digu: «lana ez da gogorra, pilotariari laguntzen saiatzen gara. Baina pilotaria gaizki ari bada, eta ezin duzula deus egin ikustean gaizki pasatzen da. Hala ere, kirola horrela da».

Ongi ikusten du Barriola. Psikologikoki «hagitz fuertea, langile amorratua» dela dio. Are gehiago, «beti lanerako eta beti hobetzeko prest dago. Kirolari aunitz ezagutu ditut baina Abel bezalakorik inor ere ez». Fisikoki ere «beti prestatua» ikusten du, «gaztetatik fisikoki hagitz ongi egon da». Eta izateko moduan Leitzako atzelaria nolako den galdetuta, hitz ederrak baino ez ditu izan lesakarrak: «kristoren pertsona da, arrunta eta ona, eskuzabala eta bromak gustatzen zaizkiona». Gustura dabilenez, «Abelek erratan didan arte, beti berari laguntzeko prest egonen naiz».



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Zorionak eta lotu lanari!

Heldu den urteko Nafarroa Oinez besta Baztanen eginen da. Baztan Ikastolak izanen du 2015eko Nafarroa Oinez eguna antolatzeko ardura. 1970. urtean erein zuten hazia hainbat gurasok eta urtez urte ureztatu dute. Maitekiro zaindu dituzte geroztik ereindako landarearen lurra, hostoak, loreak...

Zainketa eta loratze prozesuak arantzak ere izan ditu bidean; kazkabarra, elurteak, euri jasak edota eguzkiaren bero itogarriaren erasoak pairatu behar izan ditu. Hala ere, batzuetan negutegia jarriz, kalte-tutako landarea sendatuz, maitasunez babestuz aitzinet egin du Baztan Ikastolaren lore koloretsu bezain emankorrak.

Ereindako landarea aunitz hazi da urte guzti hauetan, eta heldu den urteko udazkenean, udaberri berri bat bizitzeko aukera izanen du. Zain dezagun, goxa dezagun, urezta dezagun gure landarea. Etorbizunean ere bertze horrenbertze lore eman ditzan.

«Ereindako landarea aunitz hazi da urte hauetan eta heldu den urteko udazkenean, udaberri berri bat bizitzeko aukera izanen du»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Zortzi abizen euskaldun

Ez dut ikusi zati batean Leitzan grabatu eta ahoz aho dabilen filma. Irakurri dudanez, batzuentzat betiko txiste topikoen bilduma bat bertzerik ez da. Estereotipoak hausten dituen maisulantzat dute kasik bertzeek. Manchester City futbol taldean ari den Zabaleta argentinarraren bideo laburra ikusi dut Internet-en: 'Ez ahaztu Zabaleta aski euskalduna dela, Leitzakoa, Nafarroakoa' dio.

Nabarmentzekoak



Modesto ORDOKI
Kenpo Kaiko maisua

Kenpo kaiko gerriko beltzeko hirugarren DAN gradua lortu duen lehen nafarra izan da, Sensei edo maisu titulua lortuz. Etxalar, Elizondo eta Iturenen ematen ditu klaseak.



Martin IBARROLA
Arantzako txistularia

Martxoaren 16an hil zen hainbat urtez Arantzako txistularia eta koruko organujole eta kantaria izandakoa. Herriko hamaika ekitaldi, ospakizun zein mezetan parte hartua zen.



German EREÑA
Isidoro Fagoagaz solasean

Isidoro Fagoaga idazle eta tenore beratarrari buruzko xehetasunak eman zituen aditu eibartarak. Beratarrik unibertsalena dela nabarmen utzi zuen eta loreak jarri zituen bere hilobian.

Aztera begira → 2004-IV-01 / TTIPI-TTAPA 371. zk.



Zugarramurdiko Eskual titiriteroen topaketaz

1996an antolatu zen lehen aldiz Eskual Titiriteroen Topaketa Zugarramurdirin. Kukubiltxo taldean lan egina zuen Mikel Diez hil berria zen eta bere omenez antolatu zen lehenengo topaketa. Bi urteren buruan hil zen Estefa Errorekin batera Euskal Herriko lehen txotxongilo antzoki egonkorra antolatu zuten Zugarramurdirin. Herriko bertze bi lagunekin batera *Sorginak* antzezlan eskaini zuten lau urtez, 1993tik 1997ra. Iñigo Arburua taldekideak aipatu zigunez, «udan egunero eskaintzen genituen emanaldiak eta neguan, ikastetxeekin eta aritzen ginen lanean, autobusetan etortzen ziren. Jende dexente biltzen zen beti».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2014ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitzza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Denak ez baikara berdinak

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Egun hauetan beteko dira bi urte ertzain talde batek Iñigo Cabacas basauriarra Bilbon hil zuenetik. Bi urte, eta ez dakigu ez nork hil zuen, ez bere hilketaren arduradunek zigorrrik jasoko ote duten ere, berte edozein hilketa kasutan gertatuko zen bezala. Herriar guziak berdinak omen gara. Berdinak eskubideetan eta betebeharretan, berdinak Justiziaren aitzinean. Cabacasen hilketa ikertzen ari omen dira, eta Justiziak epai bat emanen omen du. Eta epai hori justua izanen da, objektiboa. Justizia horrela baita. Funtzionatzen du eta beti dago ongi. Hori erratan digute, akaso tontotzat hartzen gaituztelako. Edo ez gaituzte tontotzat hartzen. Oraindik okerrago. Badakite egia badakigula. Badakite badakigula ETAk hildako norbaiten kasuak edo Euskal Herrian dauzkagun Polizia indar aunitzetako batek hildako norbaiten kasuak ez dutela trataera bera izanen, baina ez zaie inporta gu horretaz kontziente izatea, badakite-eta nahi dutena egin dezaketela, eta komeni zaienaren arabera jokatu dezaketela. Angel Berroeta Iruñeko Donibane auzoko okinaren kasua ikustea bertzerik ez dago. Hainen hilketa ebidenteak, halako amorruekin eginga, eta odolik isuri ez duten euskal herritar aunitzek Berroetaren hiltzaileek baino zigor gogorragoak jasan behar izan dituzte. Baina herritarren kopuru handi batek igual jasan dezake *establishment*-ak tontotzat hartzea, edo Vocento taldearen egunkariak (Diario Vascok, gure eskualdean) artikuluak argitaratzea azaltzeko Cabacas hil zutenetik ertzainek zenbat sufritzen duten; borrarera biktima bihurtzeko taktika. Baina herritar kopuru handi horrek ere ohartu beharko luke gu tontotzat hartzeko prozesu horren edo Cabacasi tiro egin ziotenak justifikatzeko helburuz argitaratutako artikulu horien biktima nagusiak basauriar gaztearen familia eta lagunak direla, eta haiek ere ETAk hildako norbaiten familiak eta lagunak bezala sufritzen dutela. Baina denak ez gara berdinak, eta denak ezin gara konparatu. Eta ezin da erran Cabacas ez zela istripuz hil futbol partida baten inguruko istilu batzutan, baizik-eta Euskal Herriko gatazka politikoa tiroz hildako azken biktima izan zela, ertzainak ez baitziren kasualitatez portatu horrela Herriko Ostatu baten parean, ideologia zehatz bateko jende saila elkartu ohi den inguru batean. Urtetan irakatsitako, sustatutako eta babestutako prozedurak erabili zituzten, gizartearen zati handiegi batek sentsibilizaziorik gabe barneratuta dituenak, pentsatzen duelako normala dela toki zehatz batzuetan jende klase baten kontra Polizia pelotazoka hastea. Eta sentsibilizazio gabezia hori lortzeko ezinbertzeko laguntzailea izan da prentsa klase bat. Baina gogorrena izanen da, segur aski, ikustea nola ezker-eskuin demokrazia lezioak banatzen dituzten agintarientzat Cabacasen kasua argitu beharreko hilketa bidegabe bat baino, gestionatzeko deserosoa den gai bat dela bakarrik. Alfombra azpian gorde beharreko hutsa, ahazteko diru publikotik soldata kobratzen duten batzuek motiborik gabe hil zutela 28 urteko mutil gazte bat.

Julio Caro Baroja

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Bizi izatera, aurtengo azaroaren 13an ehun beteko zituen Julio Caro Barojak. Arrazoi hori aitzakia gisara harturik, jende talde bat hasia da Beran bilerak egiten, gizon ospetsu hura ardatz izanen duten ekitaldi batzuk prestatzeko. Madrilen sortua izanagatik, ttattar modura “pajarita” ibiltzen zuen gizonak lotura handia izan zuen gure eskualdearekin, barojatarren familiak Itzea etxea erosi zuelako bera mundura etorri baino urte pare bat lehenago. Etxe horretan bolada luzeak pasatu zituen bere bizian, eta, bere espezialitateetako lanak egiteko, gure jendearen bizimodua, usadioak, sinesteak eta bertze ikasten aritu zen. Lan horie eta gisako hameka gehiagori esker, Julio Carok ospea lortu zuen Antropologian eta bertze jakintzagai batzuetan: Historian, Hizkuntzalaritzan... Sariak, karguak eta ohoreak eman zizkioten, eta pentsalari modura ere frankotan iritzia galdetu zioten huntaz eta hartaz zer uste zuen adierazteko. Beran, aunitzek eskertzen diote bere jakinduria gure artean ezagutarazten –bere bizialdiko urte batzuetan bederen– izan zuen eskuzabaltasuna. Hori hala izanagatik, zergatik ez ekarri gogora bertzelako iduripena zabaldu zela herritarren artean urte batzuk lehenago, Julio haurra zen denboran. Izanez ere, barojatarrek Bera etorri berritan, hain kontra gaizki erranka aritu zen bat baino gehiago herrian, eta artista-familia haren kontura istorio xeble samarrak zabaldu ziren. Kontatzen zuten Itzea apoz, sugez, mamuz eta deabruz bete zegoela, eta, Julio Caro erixko egoten baitzen maiz, zenbait gurasok seme-alabei agindu zorrortza emana zieten: erne ibiltzeko eta kasu emateko gauaz ibiltzean barojatarrek harrapatzen ahal zituztelako, haiei odola kendu eta, odol horrekin, Julitorea berritzeko. Orain, jaiotzaren ehugarren urtemuga dela medio egin gogo diren hitzaldi, erakusketa eta gainerakoetan, ez ditugu horiek bezalako funtsik gabeko arrazoibide txoroak ibiliko, baina, kontuan harturik inon ez dagoela argi-itzalik gabeko inor, guzientzat aberatsagoa litzateke ez izatea dena loria eta alabantza hutsa eta gizona nahiz bere obra modu kritikoan hartu eta jorratzea, joan den urtean 1813ko gertaera historikoekin egin zen bezalaxe»

maiz, zenbait gurasok seme-alabei agindu zorrortza emana zieten: erne ibiltzeko eta kasu emateko gauaz ibiltzean barojatarrek harrapatzen ahal zituztelako, haiei odola kendu eta, odol horrekin, Julitorea berritzeko. Orain, jaiotzaren ehugarren urtemuga dela medio egin gogo diren hitzaldi, erakusketa eta gainerakoetan, ez ditugu horiek bezalako funtsik gabeko arrazoibide txoroak ibiliko, baina, kontuan harturik inon ez dagoela argi-itzalik gabeko inor, guzientzat aberatsagoa litzateke ez izatea dena loria eta alabantza hutsa eta gizona nahiz bere obra modu kritikoan hartu eta jorratzea, joan den urtean 1813ko gertaera historikoei eman zitzaieen begiradan egin zen bezalaxe.

Irakurleak mintzo

Auzolanaren berreskurapena Areson

Ur ALGERO TXIBITE
(Aresoko alkatea, Aresoko udalaren izenean)

Aurten Aresoko Udalak derrigorrezko auzolana berriro ere indarrean jartzeko proposamena egin die Aresoko herritarrei.

Erabaki hau hartzeko arrazoi ezberdinak dauden arren, bi arlotan kokatu daitezke nagusienak.

Alde batetik, arrazoi ekonomikoak daude, dirulaguntzak eta finantziabideak urritu diren –eta are gehiago murriztuko direla dirudientestuinguru batean, auzolanak herriaren mantenturako oinarritzakoak diren lan ugari egiteko modua ematen du.

Hau da, herria txukun eta etorkizunerako prest izateko era bat da auzolana.

Baina bestetik, auzolanak badu oso interesgarria bilakatzen duen balio erantsi bat ere. Herri kontzientzia indartzen laguntzen du.

Hau da, auzolanaren bidez eginiko lanak gehiago balio duela uste dugu, herritarren elkarlanaren ondorio delako, herria denona dela ikusgarritasun eta sentiarazten duelako eta atzetik datozen belau-naldiek ere beren herria zaindu beharreko ondare bezala bizitzea dakarrelako.

Jakin badakigu gai

honen inguruan iritzia ezberdinak daudela herrian, eta horregatik, Udalak parte hartze prozesua abiatu du herrian nagusitzen den iritzia errespetatzeko konpromezuarekin.

Hartzen den erabakia dena dela ere, ahalik eta pertsona gehien iritzia aintzat hartua izan dadin herritar guztiei beren iritzia ematera gonbitea luzatu nahi diegu, eta jada horrela egin duten guztiegi gure esker ona adierazi.

Gorrotoa eta aiherra ez da konponbidea

Haizea BELARRA
ENETERREAGA (Doneztebe)

Iñaki Rekartek, Amets Arzallus eta Jon Maiarekin hitzartutako bertso bazkaria bertan behera gelditzearen ondorioz izandako jarreararen inguruan nire iritzia eman nahi nuke.

Bi bertsolariek, bi egun aitzinetik ez direla agertuko erratea alukeria ederra da, baina bertsolariei beraiei esplikazioak eskatu beharrean bitartekariak errandakoarekin gelditu zen (arrazoi politikoa zirela medio zioen, informazio faltagatik izan zela erran beharrean) eta hor hasi zen Iñakiren erreakzioa.

Lehenik eta behin, Jon eta Amets mespretxatu zituen, mota

guztietako irainak erabiliz, gertatutakoaren bere bertsioa bezero eta doneztebar guztiei kontatzen zien bitartean. Nahiz eta zuzenena ez izan, uler liteke beroaldian emaniko lehenengo pausu bezela. Baina horrekin nahikoa ez eta (ez horren haserrealdian dagoeneko) prentsan salatzea erabaki zuen, DVn artikulua eta El Paisen elkarriketa eginez. Zer zentzu dauka El Pais bezalako egunkari batean egi erdiak eta gezurrak errateko elkarriketa bat eskaintzeak?

Nire ustez, bere in-tentzioa ez zen inondik inora bere bertsioa ematea, min egitea baizik.

Horrela bakarrik uler daiten bertsolariei bereziki eta ezker abertzale osoari orokorrean min ematea helburu duen El Pais bezalako egunkari batean elkarriketa hori ematea. Horren ondorioz, PPK eta PSOEk Jon Maia Donostia 2016ko komisioko aholkularitza kargutik botatzeko eskaera egin du eta bere lana arriskuan dago. Mina jadanik egin dago.

Sortutako iskanbilaren berri izan zuenean Amets Arzallus Iñakirekin zuzenean harremanetan jarri zen (gauzak egin behar diren bezala eginez) eta dena ge-zurtatu eta Iñakiri be-rak egindako huts egi-

teaz ohartaraziz. Egin-dako akatsa zuzentze-ko berte elkarriketa bat eskatuko al du El Paisen? Egun hauetan bertsolariei buruz erran dituenak eta gero bar-kamenik eskatuko al du berte biktimekin egin zuen bezala?

Nire iritziz, ez zen mo-mentuko beroaldia izan horrela jardutearen arrazoia, El Paisek gus-tura zabaldu dion gor-roto sentimendua bai-zik. Iñaki, gorrotoa eta ahierra ez dira herriaren zati horrekin adiskitze-ko modurik onenak. Ez ezazu zure tabernan sartzen ez den jendea mespretxatu.

Zure tabernan sartu izan zen doneztebar bat.

ttipi-ttapa-rekin
AURREZTU
EZKONTZAKO
GONBIDAPENETAN

Koskontako bidea 7, LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net

100 flyer **150€**
100 bi-orriko **170€**

Koloretan | Diseinua barne | Inprinta barne
Sobreak barne | Garrisioa barne
BEZa barne | Epea: 10 lan egun

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Apustu bereziak aipatzen hasita, Lata-sa eta Juan Jose Narbaiza *Luxia*-rena aipatu behariko litzateke, 1959eko apirilaren 26an jokaturakoa. 110 ontzako bi enbor eta 14 kana-erdiko ebakituzten, 500.000 pezeta jokatuta, eta 17.890 ikusle elkartziren Donostiako zezen plazan. Ikargaria izan zen. Latasagusia nagusitu zen, 2 orduko langatik jaitsita.»

Antton ESPELOSIN
Sunbillako aizkorazalea
BERRIA 2014.03.20



«Niri urarekin lan egitea gustatzen zait, urmaelarekin, iturriekin eta ur-jauziekin. Ur mugimendua duen lorategia zerbait berezia da. Japoniako lorategiek eta meditatze erabiltzen direnek, guztiek dute ura.»
«Lantokietako lanik gabe geratu ginenean jabego pribatuetera jo genuen. Lehenago ez nuen horrelako bezeroekin lan egin, baina ongi aterata da»

John TELLETXEA
Lesakako lorezaina
NAF. HITZA 2014.03.21

11 galdera labur

Nor dugu Arantzazu Lizartza?

Medikuntza ikasten dabilen 19 urteko neska leiztarra.

Oinak dantzan edo mendian maldan gora gusturago?

Dantzan oso gustura, baina mendian are gusturago. Gustuko lekuan, maldarik ez!

Dantzan sueltoan edo binaka nahiago?

Konpainia hobean bada binaka nahiago! Jeje!.

Bisitatu duzun lekurik ederrena?

Momentuz, Erroma; hiri osoan zehar baitaude eraikin eta txoko ikusgarriak.

Gustura bisitatuko zenukeen bat?

Asko bisitatuko nituzke gustura, baina bat aukeratze arren, Tailandia aukeratuko nuke.

Diotenez, leitzarrek beti duzue aitzakiaren bat pestarako...

Bai! Hori egie da bai! Beti parrandarako gogoz eta umore onean!

Leitzako txokorik politena?

Leitze, herrie bera, eta inguratzen duten mendiak.

Zer du Leitzak faltan eta zer soberan?

Faltan, nere ustez, garraio publiko falta du; eta, hori premia handie dela pentsatzen dut. Eta soberan gauze pare bat bai!

Sendagile izateko bidean zoaz... gizarte honek badu sendabiderik?

Uf... zientziak asmatzen ahal duen sendabiderik, beti ere, ez!

Mediku euskalduna izanen zinateke zu..

Bai, posible bada, dudarik gabe! Izan ere, medikuntza komunikazioan oinarritzen dela, eta, arlo horri dagokionez, zure hizkuntzan mintzatzea baino hoberik ez dagoela kontsideratzen dut!

Amets bat?

Biharko egunean, onkologia munduan lan aritzea, eta, posible bada, minbiziazko irtenbidea topatzea.



Arantzazu LIZARTZA → Leitzako gaztea

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

edurne Altzate, 30 BERA T. 948 631 491
HAUR ARROPADENDA
IXTE-LIKIDAZIOA. ERRETIROA HARTZEN DUT
UDA Soinekoak, txaketak, kamisetak, galtzak, tokilak...
%50 eko deskontua
NEGUA Pijamak, batak, txandalak, jertseak...
Dena **5€**tan

ESKUALDEA

GIZARTEA → UDALBILTZAREN EKIMENAREKIN BAT EGINEZ

Euskal herritartasuna bultzatuko dute eskualdeko hainbat hautetsik

Euskal sinboloen eta interneteko domeinu propioen erabilera bultzatu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriaren eta euskal herritartasunaren aitortza bultzatzeko konpromisoa hartu du Udalbiltzak eta bide horretan *Euskal herritarrak gara* ebazpena aurkeztu du, hiru lan-ildo zehaztuz: euskal sinboloen erabilera bultzatzea, Interneteko domeinu propioen erabilera sustatzea (.eus) eta euskal herritartasuna publikoki adieraziko duen agiri ofizial bat sortzea. Hautetsi eta herritar guztiei dei egin die Udalbiltzak lan-ildo horiekin bat egiteko.

Joan den otsailean Ordizian hautetsien bilkura egin zen, eta ordu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herri osoko 30 alkatek baino gehiagok parte hartu zuten aurkezpenean.

an erabaki zen euskal herritartasuna izeneko lan-ildoa abiaraztea. Horren ondotik, Udalbiltzak partehartze prozesu bat egin zuen 200 alkate eta zinegotziren ekarpenak bilduz, eta behin hori eginda, Donostian azaldutako ebazpena hurrengo hilabeteetan eginen diren ekimen sail baten abiapuntua izan da. Zehazki, martxoaren 17an egin zuten aurkezpena Donostiako Miramar jaure-

gian eta Euskal Herri osoko 30 alkate baino gehiagok parte hartu zuten. Tartean ziren Jaime Iturria Arantzako alkatea, Ur Algero Aresoko alkatea, Migel Mari Irigoien Etxalarko alkatea, Lourdes Ibarluzea Iganztziko alkatea, Mari Jose Bereau Iturenko alkatea eta Xebe Txopereña Lesakako alkateordea. Hala ere, Udalbiltzaren hautetsi guztiek eginga dute ekimen honenkin bat, eta eskualde-

tik Arano, Arantza, Areso, Baztan, Bera, Bertizarana, Donamaria, Etxalar, Goizueta, Ituren, Leitza, Lesaka, Sunbilla, Sara, Senpere eta Azkaineko hainbat alkate eta zinegotzik.

HIRU ERRONKAK

Alde batetik, euskal sinboloen erabilera bultzatu nahi du Udalbiltzak. Eremu instituzionalari dagokionez, Euskal Herriaren izatea aintzat hartzen duten bu-

lego-paperak, seinalizazioa eta irudi korporatiboa sustatuko ditu udaltxeetan. Gisa berean, herritarren esku behar diren baliabideak jarriko dituela erran du, «hain nortasun nazionala agerian eta modu pulikoan adieraz dezaten, hala nahi badute».

Bigarrenik, Interneteko domeinu propioen erabilera sustatuko du Udalbiltzak. Euskal Herriko udalen web orrietan .eus-en erabilera proposatuko du eta eremu pribatua domeinua zabaltzeko xedearekin ekimenak ere egingen ditu.

Azkenik, euskal herritartasuna publikoki adieraziko duen agiri ofizial bat sortzea ere bultzatuko du Udalbiltzak. «Herritarren atxikimendu librean oinarrituko da eta Euskal Herriaren kultura, hizkuntza eta identitate espresio anitzekiko errespetuzko jarrera mantenduko du». Horretan lanean ari dela jakinarazi dute Udalbiltzatik.

Yves Réquena doktorearen
'CHIAPI' METODOarekin

ERRETZEARI UTZI
AKUPUNTURA SAIO
BATEKIN

BERAn - 620 71 94 00
www.metodochiapi.com
metodochiapi@gmail.com

IREKI BERRIA!

ORDOKI
GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

telf. 637 40 83 20
Kanttonberri, 4 • BERA

Ordutegia: astelehenetik ortzirralera
9:00 → 13:30 / 16:30 → 20:30

ETXERA JOANEN GARA ILEA MOZTERA
13:30 → 16:30
aurrez eskatuta

GIZARTEA → MARTXOAREN 15EAN EGIN ZEN URTEKO BATZAR OROKORRA

Zuzendaritza batzordea berritu gogo du Gure Txokoak urrian

Belar artifizialeko futbol zelaia lortzeko lanean segitzen du

TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa elkartek urteko batzarra egin zuen martxoaren 15ean. Iazko ekitaldien eta kontuen berri eman zuten eta aurtengorako dituzten egitasmoak ere aurkeztu zituzten. Aipagarria, urri aldera, zuzendaritza batzorde honen legegaldia bukatuko dela eta «berri bat sartzeko garaia dela». Matxada futbol zelaia arazoa moldatzeko lanean segitzen dutela ere azpimarratu zuten.

Dantza taldeak San Migel zubiko bigarren mendeurrenean parte hartu zuen. Bestetako jaialdian izandako arazoak ere aipatu zituzten. Aurten, jaialdia Herriko Etxeko plazan egin nahi dute.

Pilotan, bestetan Luis Mari Retegiri egindako omenaldia azpimarratu zen. Aurten berriz ere Herriartekoan parte hartzea espero dute.

Futboleant, 165 federatu ditu Gure Txokoak eta aurten jubilen taldea ateratzea lortu du berriz ere. Erregionaleko taldea osatzeko jokalaria



UTZITAKO ARGAZKIA

'Gure Esku Dago' dinamika aurkeztu dute

Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpenerako deialdia egin zuten martxoaren 21ean Kultur Etxean arlo ezberdinetako hainbat herritarrek. Agerraldian aipatu zuten, «garai berriak bizi ditugu Euskal Herrian. Garai berri hauek baliatuz, elkarlanaren ildotik urrats berri eta sakonak egiteko unea dela pentsatzen dugu. Ezinbertzekoa da elkarrekin aitzinera egitea ziklo berri eta ilusionagarri bat irekitzeko, eta bide honetan herritarrak protagonista nagusi bilakatu beharok ditugu». Martxoaren 28an egin zen aurkezpena Beralandetan.

ohiak errekuperatu eta futbolgoek futboleko fitxak ere egin dute.

Txirindularitzan, ohiko ekitaldiez gain, maiatzean Salvador Yanciren omenez eginen den txirindularitza probaren antolatketan parte hartuko du Gure Txokoak.

Aparteko gastuen artean, Agerrako argiak (2.000 euro), Lesakan tikiak aritzeagatik ordaintzen dena (1.200 euro) eta Eguberrietan Matxadako ostatuan eta Agerrako etxolan hautsitakoak aipatu zituzten.

Caro Barojaren mendeurrena antolatzeko bileretan Lupe Mendigutxia izanen da elkarteko ordezkaria.

Ba al zenekien

Mantaleko kideek 126 kilo beira bildu zituztela martxoaren 19an Zizkuitz eta Larungo kaxkoaren artean. Duela bi urte bertze 80 kilo bildu zituztenez, 200 kilotik goiti jaso dituzte.

Bestak antolatzeko bilera irekia apirilaren 7an

Oraindik urruti daudela iruditu arren, bestak prestatzen hasteko tenorea ailegatu da. Aurtengoak ere arrakastatsu eta parte-hartzaileak izatea da helburua eta horretarako, lehen bileran irekian parte hartzeko gonbidapena egin du Kultur Batzordeak. Hilaren 7an izanen da, 19:00etan, Beralandetan.

Hip hop ikastaroan izen emateko epea zabalik

Hip hop ikastaroa emanen da aurten ere, apirilaren 22, 23, 24 eta 25ean. Bi taldetan banatu eta Lehen Hezkuntzakoak 09:00etatik 11:30era ariko dira eta DBHkoak 11:30etik 13:00etara. Sarrera 6 euro kobratuko da. Izen emateko 012 telefonora deitu behar da, apirilaren 10a bitarte.



Pertsonaia

Beñat MITXELENA

Zizurren txapeladun

Zizurko lau terdiko pilota txapelketaren finalak jokatu ziren martxoaren 15ean. Gazte mailako txapela lortu zuen Gure Txokoako Beñat Mitxelenak Jakari 18-7 irabazita. Partida hasieratik luze hasi zen jokatzeko beratarra eta Jaka nekatu zenean, bai dejadaz bai gantxo min handia egin zion.

Pilota jaialdia Enaitzen alde

Bortziriak pilota elkartek Enaitzen aldeko pilota jaialdia antolatu du apirilaren 11n, 19:45ean Eztegaran. Kadetetan, Jonan Fagoaga eta Beñat Ordoiki, Mikel Eltzaurdia eta Aritz Lekuonaren kontra. Gazte mailan, Andoni Lazkanotegi eta Harri Maritorea, Oian Canabal eta Mattin Garbisuren kontra eta Ander Errandonea eta Jon Olaizola, Beñat Mitxelena eta Iñigo Martinezen kontra. Sarrera 5 euro kobratuko da. Zozketa bikainak eginen dira eta ostatua ere irekiko da.

Xirgil
Jaiak
Jaiak Goya

Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

Arturo

Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria

Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behe 31780 BERA
t 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

LESAKA

GIZARTEA → NAFARROAKO PARLAMENTUKO KULTURA BATZORDEKOAK IZAN ZIREN BISITAN

Herriko Etxetik Kultur Etxera eramanean gogo dute liburutegia

60.000 euro aski lirateke horretarako

Aitor AROTZENA

Nafarroako Parlamentuko kultura batzordeak Harriondoa Kultur Etxea bisitatu zuen martxoaren 20an eta udal ordezkariak Herriko Etxeko hirugarren solairuan dagoen liburutegia Kultur Etxera eramateko dirulaguntza eskaria aditu zuten.

Toki polita izanagatik, gaur egungo liburutegiak ez du batere erraztasunik eskaintzen bertara ailegatzeko, igo-gailua bigarren solairuraino bakarrik igotzen baita. Horrek, irisgarritasun eta segurtasun arazoak sortzen ditu, sarbide eta aterabide bakarra duelako, eskailerekin.... Bertze aldeetik, kultur etxean liburutegia hartzeko tokia prestatua dago, baina hutsik. Hortaz, liburutegiko materiala lehenbailehen eramateko eta beharrezko mobleak jartzeko laguntza eskatu zuten. 60.000 euro inguruko aurrekontuarekin aski litzatekeela uste dute udal ordezkariak.

Udal ordezkariak eta kultur teknikariak egin zieten harrera Nafarroako Parlamentuko or-



XAGU LESAKA

ARGAZKIA: XAGU LESAKA

Gure esku dago Lip-duba grabatu eta aurkeztu dute

Gure esku dago lip-duba arrakastatsua suertatu da. Hainbat bortziriarek parte hartu zuten grabaketan eta 300 bat lagunek bete zuten Kultur Etxea aurkezpenean. Bideoaren sareko loturak (www.youtube.com/watch?v=bdt3pBZs6JQ) 12.000 ikustaldi baino gehiago jaso zituen, zintzilikatu eta bi egunera.

dezkariei. Eskatzen den laguntza ez dela kantitate handia erran zieten udal ordezkariak eta parlamentariak ados agertu ziren horrekin. Aldaketa nabarmena izanen dela gaineratu zuten: segurtasuna, sartzeko erraztasuna, funtzionalitatea, interneteko konexioa erraztuta bertze libutegian dagoen materiala eskuragarria izatea... lortuko dela. Egun berean mozioa aurkeztu zuten laguntza eskaria-ekin parlamentuan eta orain erantzunaren zain daude Herriko Etxean, dirulaguntzarik gabe ezin baita lekualdatzea egin.

GIZARTEA → APirilAREN 11 BITARTE

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara lanak aurkez daitezke

A.A.A.

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Bertze aldeetik, gibelego azala aukeratzeko, herriko ikastetxetan ari diren haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 11n akautuko da. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko erosketa bonoa eramanean dute eta gibelego azalarenak 100 eurokoa.

Aurkezten diren lan guztiek irakusketa osatuko da Harriondoa apirilaren 17tik 27ra. Herri bozketak erabakiko du irabazlea. Erakusketan eta udalaren webgunearen bidez bozkatzen ahal da.

FLASH

Tantirudantza apirilaren 6an

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatutako Tantirudantza apirilaren 6an izanen da. Herriko dantzari-ekin batera, Getariako Gure Txeru, Faltzesko Makaia eta Oiartzungo Haurtzaro taldekoak ariko dira. Igande goizeko 11etan karrizak karrika ibiliko dira taldeak, 12etan Zubigainekoa dantzatuko dute herrikoek eta gero jaialdia plazan. 17:30ean Kiki eta Koko pailazoak ariko dira.

Kea ez da hain urdina

Kea ez da hain urdina, Gaizka Sarasola, Xabier Erkizia eta Erika Lagomak prestatutako emanaldia ikusgai izanen da apirilaren 5ean, 20:30ean Harriondoa Kultur Etxean. Gaia duela bi urte eskas egin zen txondorra da eta bertzeen artean Peio Larralderi egindako elkarrizketa ikusteko aukera izanen da Arrano elkarteak antolatutako ekitaldian.

Ikastetxera kotxerik gabe

Ikastetxera kotxerik gabe ekimena abian jarri du Udalak. Martxoaren 26an hasi da eta asteazkenero egiteko asmoa dago. Horretarako, goizeko 8:45etik 9:00etara Jauregiaren etxearen aitzinean eta Morrontxea parean trafikoa moztuko da.

J.RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattogorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURTXEA OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
GOSARIAK
Arratzubi kalea 4, 31770 Lesaka
TEL: 948.637.260 · ORDUTEGIA: 07:30-15:30

SOLASALDIAK → APIRILAREN 5EAN

Jakoba Errekondok hitzaldia eskainiko du Larraburuan

Hainbat gaien inguruan solastu ondotik herritarren galderak ere erantzunen ditu

Irune eta Itsaso

Apirilaren 5ean, larunbat arratsaldeko 4etan hitzaldi interesgarria eskainiko du Jakoba Errekondok herrian. Larraburuan izanen da hitzordua eta gaien interesa duen edonor bertaratu liteke; berdin da herritarra izan edo ez. Jakoba hainbat gaien inguruan solastuko da eta aholku baliotsuak emanen ditu zalan-tzarik gabe baratze, zuhaitz, landare, txertaketa... inguruan. Ondotik galderak egiteko tartea ere zabalduko da eta

hala, bertaratzen direnek aukera izanen dute Jakobarekin solasteko.

Biodantza tailerra

Kultura batzordeak antolatuta biodantza tailerra izanen da apirilaren 5ean, larunbat goizeko 11:00etatik 13:00etara. Ainhoa Otermin izanen da irakaslea eta apuntatzeko 667766290 telefonora deitu behar da.

Auzolana

Martxoaren 22an Etxalar Aitzinerat taldeak deituta auzolana egin zen. 8:00ak aldean elkartu eta Mokorreko borda aldera abiatu ziren. Bagole mendira doan bidaxka garbitu eta bideko zuhaitzak kimatu zituzten. Ondotik, giro ederrean gosaldu zuten.



ARGAZKIA: AINTZANE OLLOKIEGI

Zuhaitzaren eguna

Martxoaren 14an Landagain eskolako ikasleak Axeri lepora joan ziren zuhaitzak landatzera. Lehen hezkuntzako ikasleak oinez joan ziren eta haur hezkuntzakoak kotxeetan gurasoen laguntzarekin. Joxe Angelen azalpenak aditu ondotik, zuhaitzak landatzen aritu ziren eguerdira arte. Bertan bazkaldu ondotik udalak eskainitako patatak eta edariak jan eta eskolara itzuli ziren ikasleak.



ARGAZKIA: VENANCIO ELIZAGOIEN

San Jose Zurginaren Kofradia

Aurtengoan ere, aspaldiko ohiturari jarraituz, San Jose goizean, Kofradiko arduradunak diren Juan Antonio Indaburu eta Jesus Antzuguren Elutsa ostatu- an egon ziren kideei urteko kuota kobratzeko.

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA: **948 638 232**
Koskontako bidea, 7 (osasu-zentroaren parean) 31770 LESAKA

zatoz denda berria ezagutzera!!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERANDONKA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidaxoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA

PINTXOAK
BOKATIAK

Tfnoa: 948 630 259 BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

ARANTZA

GIZARTEA → ZORTZI EMAKUMEZKO ETA BI GIZONEZKO

Ekaitza Elkarteko zuzendaritza batzordea berritu dute

Hamar bazkidek osatuko dute junta berria

Nerea ALTZURI

Ekaitza Elkartek joan den martxoaren 22ko ilunabarrean batzar orokorra egin zuen. Urteko kontuen berri emateaz gain, elkarteko batzordea edo junta berritu zen. Izan ere, bi urtero behin egiten den moduan, taldea aldatzea tokatzen zen.

Azken bi urteotan, Juan Migel Almandoz, Gregorio Mitxelena, Belen Mutuberria, Maixe Fagoaga, Iñaki Alustiza, Aitor Telletxea, Luzia Iparragirre, Isidoro Goia, Asier Etxepeteleku, Xatur Larralde, Joxe Ramon Amoros eta Xabier Zugarramurdi elkarteko ordezkariak izan dira.

Ia ehun bazkidek, 91 bazkidek zehazki, bozkatzeko aukera izanik, azkeneko batzarrean boto kontaktak egin eta

batzorde berria nortzuk osatuko duten jakin zen. Honako hauek izanen dira junta berriko kideak: Gabi Goia, Ainara Aramburu, Aitziber Lizardi, Beatriz Taberna, Iker Iguzkiagirre, Eneko Sarras, Mirari Maiz, Gurutze Pikabea, Nekane Maia eta Ixabel Danboriena.

Pailazoak

Larunbat honetan, 18:00etatik aitzinera eta Pelle Ttiki hauteskolaren alde, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan Bizipoza ikuskizuna izanen da frontoian. Udaletik, ahal baldin bada, autoa etxean uzteko eskaera eginga da egun honetarako. Izan ere, larunbat arratsaldean kanpotik jende aunitz etortzea aurrikusi denez, autoentzako apartzeko leku gehiago izatea da helburua.

Bertzetik, Enaitz Gara guraso taldeak Enaitzen aldeko kamisetak salgai izanen ditu frontoian.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Aranztarrak Lesakako Gure Esku Dago egunean

Martxoaren 15ean Gure Esku Dago lip dub-a grabatu zuten Lesakan, eta aranztar talde hau ere hantxe izan zen parte hartzen. Bideoa youtuben ikusgai dago.

Martin joan zaigu

Martin Ibarrola herriko txistularia, koruko organujolea eta kantaria martxoaren 16ko goizaldean zendu zen. Biharamunean, martxoaren 17an, 83 urte beteko zituen Martinek. Hamaika herriko ekitaldi, ospakizun zein mezetan parte hartua organu zein txistu doinuekin. Haur kozkorak ginela, txistua ikasteko lehen urratsak berekin eman genituen; eta herriko koruan gaur egun jarraitzen dugunok bere prestutasuna oroitzen dugu. Joan zaigu maixu handia, baina dagoen tokian dagoela ere, beti gure bihotzetan izanen da.

Herriko txistulari eta koruko taldearen partetik, hor doaz bertso hauek zure omenez Martin, zuri hainbertze gustatzen zitzaizun habanera doinuan:

Egunsentiko txoriak ta txirritak iluntzean / haizearen txistu hotsa zuhaitzekin dantzatzean / zortzikoak kalejirak akordeekin lotzean / bizitza musikatzan da zurekin gogoratzean / borondatezko emari batuta baten atzean / maitasuneko doinuen oihartzuna bihotzean / gaur arte hala izan da ta berdin aurrerantzean / zure boza entzungo da gure kantu bakoitzean.



948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertazak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tlf: 948 625 474

Javier Manterola

Tekniko instalatzailea
iturgintza • gasa
kalefakzioa

Tfnoa: 629449602 • BERA

KIROLA → APIRILAREN 13AN

Nafarroako Kirol Jokoen finala herrian jokatuko dute

Herriko Irisarri taldeak kimu mailako proba konbinatuko finalerako sailkatzeko aukerak dauzka

Joxean ORTEGA

Nafarroako Kirol Jokoen finala Igantzin izanen dugu apirilaren 13an. Goizeko 11etan gazteenak lanean hasiko dira. Gero zaharragoak arituko dira, eta hauek egin beharreko proben artean arpana eta sokatira izanen dira. Igantziko taldeak bertan egoteko aukera aunitz ditu. Ea finalera ailegatzea lortu eta behar bezala animatzeko aukera dugun!

Konposta bultzatzeko kanpaina arrakastatsua

Zabor Mankomunitateak egindako azken kanpaina arrakastatsua izan da Igantzin. Jendea hitzaldietara hurbildu zen eta gero konpostagailuak ere eskatu zituzten. Azken bileran 13 lagunek egin zuten eskaria. Konpostagailuetan hondakin organikoak konpostatzen dira eta gure barzetzetako ongarria bihurtzen da hori gero. Zakar-poltsa gutxiago ere beharko ditugu: konposta egin da, poltsen %40 inguru murrizten da. Azken finen gure arbasoek babserrietan egiten zutena berreskuratu bertzerik ez dugu egin: sukalde eta otorduetako hondarrak haziendei edota



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lehen ere lan ederra egin da auzolanean, Larrondoko ikuztegiak erakusten duenez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gose taldea izanen da maiatzaren 3ko gaupasan parte hartuko duen taldeetako bat.

monttonara botaz ez zen zaborrik sortzen. Argi dago, haiengandik oraindik badugula zer ikasia...

Auzolanerako deialdiak

Udala aurtengo auzolanak egiteko deialdiak zabaltzen ari dira eta kaleratu du egin beharreko lanen zerrenda. Nahi duenak Udaletxe-

tik pasa eta ikusi deza-ke zeintzuk diren premiak. Norberari hobekien heldu zaiona aukeratu bertzerik ez du egin behar.

Gaupasa galaktikoa maiatzaren 3an

Datorren maiatzaren 3an Udalak eta gazte-ek antolatuta, gau-pasa galaktikoa izanen da. Jendea animatzeko se-

kulako kontzertua pres-tatu dute. Hiru taldek hartuko dute parte: Gose, AZ/DZ eta Bad Sound Systemek. Gainera Kinto Besta aunitz izaki, giro aparta ziurtatuta dago. Dagoeneko kontzertua finantziatze-ko errifak salgai paratu dituzte eta betiko lekue-tan erosten ahal dira.

Egun honi buruzko informazio gehiago hu-rregi aldizkarietan!



HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

ORBELA
SENDERSMOIA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

BERA Zure inguru klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuak
Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

BORTZIRIAK

HEZKUNTZA → HORIETATIK BI ITALIAN ETA BERTZEA ERRESUMA BATUAN

Europar ikasiko dute Toki Onako hiru ikasleak Erasmus bekarekin

Hiru hilabeteko egonaldia egingen dute

TTIPI-TTAPA

Urteak daramatza Berako Toki Ona ikastetxeak bere ikasleak atzerrian edota zenbait enpresetan euren formakuntza osatzera animatzen. Aurtengo ikasturtean ere, badira ideia horrekin bat egin dutenak. Hala, Goi Mailako Lanbide Heziketako zenbait gaztek bere prestakuntzaren zati bat ikastetxetik kanpo burutuko dute.

Alde batetik, Erasmus beka dela medio, Mekatronika Industriala ikasten duten hiru ikasleak, Lantokiko Prestakuntza modulua atzerrian egingen dute. Hauen



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroa osoko solaslagunak Lesakan bildu dira

Nafarroako Mintzakide eta Solaslagunek sagardotegi bazkaria ospatu zuten Linddurrenbordan. Eskualdeko AEK eta IKAKo ikasleak ere beraiekin izan ziren eta elkarrekin egunpasa bikaina egin zuten. Baztan, Malerreka, Bortzirriak, Lizarra eta Iruñerriak, osotara 45 bat lagun bildu ziren.

tatik bik, Italian gauzatu dute egonaldia, eta bertzeak berriz Erresuma Batuan. Beka hauen iraupena, hiru hila-

betekoa izanen da, apiriletik ekainera bitartekoa hain zuzen ere.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak hitzar-

men berezi bat sinatua du Volks Wagen enpresarekin. Hitzarmen honi esker, Volks Wagenek Nafarroa osoko

zenbait gazte hartzen ditu, Lantokiko Prestakuntza modulua, Iruñeko lantegian burutu dezaten. Praktika hauen iraupena, aurreko kasuan bezalaxe hiru hilabetekoa da, apiriletik ekainera bitartekoa alegia. Behin prestakuntza epea bukatuta, lan kontratu bat eskaintzeko aukera ere badagoela gaineratu dute eta baita, Alemaniara lanera joateko aukera ematea ere. Hain juxtu, aurtengaz bezalaxe, Mekatronika Industriala ikasten ari den ikasle bat, hautatua izan da, Volks Wagenen joateko. Aurreko ikasturteko ikasleak, hor bertan segitzen du lanean, lan kontratu batekin, eta suete bera opa diote aurtengoari ere ikastetxetik.

2014 / 2015 IKASTURTEA

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN

TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA











AURREINSKRIPZIOA APIRILAREN 7tik 15era

Telefona: 948 625 000



e-mail: iesbera@educacion.navarra.es

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>



GIZARTEA → ALKAIAGAKO LOKALA ERE LARUNBAT HONETAN IREKIKO DA

Bidazi elkartearen azokaren inaugurazio besta ortziralean

Bazkideek txandaka eginen dute lan oraingoz

TTIPI-TTAPA

Bertzelako kontsumo eta produkzio ereduak bultzatzeko helburuarekin, 2013ko apirilean aurkeztu zuten Bidazi elkarte. Geroztik azoka bat irekitzea izan da bere helburuetako bat, «bazkideentzat kontsumo kontziente eta transformaziala posible egiten duen tresna, lokal baten inguruan ahal bezain gertukoak diren kalitatezko produktu ekologikoak biltzen dituena». Eta proiektu horretan burubelari lanean ibili ondok, asteburu honetan irekiko dute Alkaia-gan prestatu duten lokala. Oraingoz, elkarteak ez du langilerik kontratazeko balia biderik, eta hortaz, dendan bazkideek txandaka eginen dute lan.

Apirilaren 4an 18:30-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaur egun 70 bat bazkide ditu Bidazik. Argazkian, taldeak egindako batzar bat.

ean irekiera besta eginen dute. Bazkideez gain, lokala edo azoka ezabatu nahi duten guztientzat atek zabalik izanen dira. Larunbatean bazkideendako irekiko da denda.

BAZKIDEAK

Gaur egun 70 bat bazkide ditu Bidazik, Irun, Hondarribia, Hendai, Zugarramurdi, Le-

saka, Bera, Igantzi, Arantza, Etxalar... eta inguruak. Norbana-koak, taldeak edo ekoizleak izan daitezke bazkide eta norbaitek interesa izanez gero, badu oraindik izen emateko aukera. 50 euroko diru-sarrerara egin behar da bazkide egiteko, eta gero hileru hiru euro ordaindu. Horretaz gain, urtean guttienez hiru ordu

eskaini beharko zaizkio auzolanari elkartearen proiektuei laguntzeko. Taldeen kasuan hilean 15 euro ordaindu beharko dira eta urtean 15 ordu eskaini auzolanari.

Informazio gehiago lortzeko www.bidazi.org atarian sar daiteke, edo info@bidazi.org helbidera idatzi. Bazkide berrientzako batzar irekiak ere antolatzen dituzte.

APIRILAREN 9AN

Sexu hezkuntza landuko dute Bortzirietako Ezintasunaren 8. Jardunaldiek

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Osasun Etxeak Ezintasunaren jardunaldiak antolatu dituzte zortzigarren urtez. Apirilaren 9an, 17:00etatik 19:00etara izanen dira Lesakako Harriondo Kultur Etxean eta sexu hezkuntza izanen dute hizpide. 17:00etan jardunaldien aurkezpena eginen dute. ANFASeK eta ASPACEK Bortzirietan dituzten egitasmoak aurkeztuko dituzte laburrean eta gero Guztioi Guraso Taldearen aurkezpena eginen dute. 17:40an hitzaldia eskainiko du Jose Luis Garcia COFESeko sexologoak *Hezkuntza sexuala eta afektiboaren garrantzia pertsona ezinduentzat* izenburupean. Gero, eskaera eta galderen txanda izanen da. Haur Txokoa ere eskainiko da. Horretarako 948 635036 telefonoan eman behar da izena.

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalainjatekx.com

zalain

sarobe
gozotegia okindegia

p^o de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

GIZARTEA

NAFARROA → EHIZA ELKARTEAK BAT EGINIK

Ehizaren Mahaiak ez du guarda nahitaezkoa izaterik nahi

Legea aldatzeko proposamena helarazi dute Parlamentura UPNren bidez

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Ehiza Sozialaren Mahaiak egindako lanaren berri eman du berriki egindako prentsa agerraldian. Gehien bat, ehiza legea aldatzeko Parlamentuan UPNren bitartez aur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehizaren Mahaiak martxoaren 8an egin zuen bilkura Aizoainen. Tartean, argazkiaren eskuinaldean, Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteko German Castillo.

keztu duten proposamena izan zuten hizpide. Ehiztarien eskari aunitz bildu dituzte bertan eta batez ere, «basurde, azeri edo orkatz ehizaldietan, guarda nahitaezkoa ez izatea».

Ehizaren Mahai ho-

nek elkarte ezberdinetako ehiztariak biltzen ditu. Azken hogei urteetan bakoitza bere alde tik ibili dela onartu dute eta horrek, «ez duela emaitza onik ekarri». Horregatik, aitzinera begira, ahots bakarrean

bilduta agertuko dira erakundeen aurrean. Parlamentuan eskaria aurkeztu ondotik, beren hitza kontuan hartzea nahiko lukete eta guarda derrigorrezkoa izatea behartzen duen legea aldatzea.

NAFARROA → ARANTZAN ETA BEINTZA-LABAIENEN

Euskaraz Blai Udalekuak eskainiko dituzte aurten ere

Izen emateko epea apirilaren 1etik maiatzaren 9ra izanen da

TTIPI-TTAPA

Arantzako Aterpeak, Beintza-Labaiengo aterpetxeak eta Bertizko Turismo Partzuergoak Euskaraz Blai Euskarazko Udalekuak kanpaina aurkeztu dute martxoaren 25ean, astearte goizean Bertizko

Partzuergoaren egotzian. 15 urte beteko ditu aurten gazteen artean euskara suspertu eta indartzeko asmoz egiten den udalekuak. Kanpainaren berri eman zuten Bertizko Partzuergo Estitxu Iparragirrek, Beintza-Labaiengo aterpetxeko Mikel Albisuk eta Arantzako Aterpeko Xabi Zugarramurdik.

Euskarazko Udalekuak-Euskaraz Blai egitarauan, hizkuntzan trebatzeaz gain, gazteek esperientzia aberasga-



UTZITAKO ARGAZKIA

Garai nahasietan saltzen ikasi dute Cedernaren eskutik

Bidasoaldeko hogei lagunek parte hartu dute Cederna Garalur-ek antolatu duen "Garai nahasietan saltzea" ikastaroan. Ikastaroa salmenta teknikan aditua den Miguel Iribertegui eman du Alkaiagan martxoaren 3, 11 eta 18an. Bere esperientzia zabalarekin, salmentarako formula berriak eta, batez ere, hobetzeko proposamenak eman ditu. Hainbat sektoretako 20 lagunek hartu dute parte hiru prestakuntza-saioetan, eta hagitx balorazio positiboa egin dute horietaz.

rria izanen dute, aisialdirako jarduera erakargarrien bidez, Arantza eta Beintza-Labaien ezagutu erta naturaz gozatuz. Aurtengo berrikuntzen artean: egonaldia 5 gauekoak izan beharrean 6 gauekoak izanen direla (igande ar-

ratsaldetik larunbatera), baserriari buruzko eguna eta, taldearen adinaren arabera, "bibak" gaztea (izarpean lo egitea) antolatuko dituzte.

Bertiz Partzuergo Turistikokoak antolatu du aurteko kanpaina eta haren bidez egin behar

da matrikulazio prozesua apirilaren 1etik maiatzaren 9ra www.consorciobertiz.org webgunean. Urtero bezala, guraso eta tutoreekin informazio bilera ekainaren 13an, arratsaldeko 6etan egingen da Bertiz Partzuergo Turistikokoan.

“Nik Varilux nahi dut,
lente progresibo guztiak ez direlako berdinak.”



2. LENTE
PROGRESIBO PAREA

OPARI*
VARILUX®

*Eskatu promozioari
buruzko argibideak

Martxoaren 15etik maiatzaren 15era
Intzuri optikan

Etor zaitetz optikara eta zure beharren arabera
informatuko dizugu.



Bittiria 28, Lesaka
948 627 550
www.intzurioptika.com

VARILUX®
Una Lente Essilor

SUNBILLA

GIZARTEA → HAUR HEZKUNTZAKOAK

Baserriko lanen berri izan dute eskolako ikasleek

Ondartziagan eta Txurinbordan aziendak ikusi zituzten eta Josefina Jorajuriak gaztak nola egiten dituen ikasi zuten

Maider PETRIRENA

Haur hezkuntzako hurrek eskolan ardiei, ahuntzei eta behiei buruzko informazioa bildu dute eta hainbat lan eta bisita egin dituzte. Hain zuzen, martxoaren 11n, eguraldi ederra lagun, Sunbilla bertan irteera tiki bat egin zuten eta bi baserri bisitatu zituzten. Lehenik Ondartziagan egon ziren eta bertan behien granja ikusi zuten Es-

therren gidaritzapean. Ondotik Txurinbordara joan ziren eta han berri-ardiak eta ahuntzak ikusteko aukera izan zuten baita ukitu eta besoetan hartzekoa ere. Ez zen izan irteera bakarra, martxoak 21ean Josefina Jorajuriaren etxera ardi gazta nola egiten den ikustera joan ziren. Aipatu beharra dago Sunbillan Asteburu Kulturalean herriko gazta lehiaketa egiten dela eta hainbat urtetan Josefina irabazle suertatu zaigula. Gazta dastatzeko aukera ere izan zuten.

Herreratarrak lanean

Caja Ruralek antolatzen duen BTT mar-
txa abian da. Martxoaren 9an izan zen lehen lasterketa, aurreko urteetan bezalaxe lzkuen. Bi herritar ari dira ber-



ARGAZKIAK: ANA BELEN AGERREBERE

Goiko argazkian, ikasleak Josefina Jorajuriak gazta nola egiten zuen ikusten. Behean, ezkerrean Txurinbordako antxumearekin eta eskuinean Ondartziagako behi granjan.

tan parte hartzen, Koldo eta Eneko Herrera. Martxoaren 23an Cascanten izan zuten bigarren karrera. BTT mar-
txa honetaz gain, aipatu behar da Enekok Nafarroako federazioarekin Espainiako ope-
nean parte hartzeko aukera ere izan zuela Valladoliden martxoaren 15ean. Ikusten dugunez han eta hemen lehia indartsu dabilza Herre-
ratarrak. Ea bide bere-
tik segitzen duten!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eneko Herrera lzkue eta Valladolideko karreretan.

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

BERTSOLARITZA → HIRU TALDEREN ARTEAN

Bardoak txapelketako finala apirilaren 13an jokatu dute Lesakan

Finalaren ondotik triki-poteoa eta afaria izanen dira

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 13an, arratsaldeko 5etatik aitzinera jokatu da Lesakako udal pilotalekuan Bardoak ekimeneko finala. Bigarren fasetik pasatu diren hiru taldeak izanen dira lehian, guztira bederatzi bertsolari eta hiru aurkezle, talde bakoitzetik bana, baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez daude zehaztuak.

Finala baino lehen 22 saio egin dira, 60 bertsolarik hartu dute parte horietan, eta osotara 110 parte-hartzaile izan dira.

Nafarroako Bertso-

zale Elkartetik aipatu dutenez, «Lesakako finala otsailaren 7an martxan jarri zen Bardoak Nafarroako taldekako bertso txapelketaren bukaerako ekitaldia da. Finalaz harago doan ekitaldi bat da, azken bi hilabetetan Nafarroako bazterrak astindu duen kultur dinamikaren azken urratsa».

Finala bukatuta, triki-poteoa eginen da herrian barna. Eguna bukatzeko, afaria eginen da Linddurrenborda sagardotegian.

Sarrerak dagoeneko salgai dira. Sarreren prezioak honakoak dira: 15 euro; Bertsozale Elkarteko bazkideentzat, 16 urtetik beherakoentzat eta langabetuentzat: 10 euro Finalaren ondoren, egin den afarirako txartelak soilik internetez erosten ahal dira. Lan-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Baztango Lepatanatuek 2 eta Lesakako Zortziko haundiena taldeak Elizondoko Intzan egin zen finalurreko lehen saioan. Bi taldeetako bat finalean izanen da.

gabetuek, berriz, soilik salmenta tokietan izanen dituzte salgai sarrerak. Finalaren egunean bertan takila goizetik zabalduko da, frontoian.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eu webgunean daude salgai. Horrez gain honako tokitan: Lesaka (Arrano, okindegia), Bera (Kataku eta Errekalde), Elizondo

(Fantxi), Leitza (Maimur eta Lekunberri (Lanbroa liburudenda).

Finala antolatzen Lesakako udalak eta Bortzirietako Bertso Eskolak lagundu dute.

KANTUGINTZA → MARTXOAREN 29AN

Nafarroako Haur eta Gaztetxoentzako Kantari Jaialdiak Beran egindako saioarekin hasi dira

A.A.A.

Urtero bezala azken 20 bat urtetan, Nafarroako Haur eta Gaztetxoentzako Kantari Jaialdiak ospatuko dira. Jaialdi hauetan Nafarroa osoko haur eta gaztetxo guztiak daukaten aukera da: bakarka, binaka edo taldeka abesteko aukera da; oholtzaren gainean igotzeko aukera; euskal kantak interpretatzeko aukera; Nafarroako beste herrietako haur eta gaztetxoak ezagutzeko auke-

ra... Aukeraz beteta dagoen emaldi multzo hau aurten 4 Jaialdiez osaturik dago, Nafarroako lau herrian ongi banaturik. Berako Kultur Etxean egin zen lehena martxoaren 29an, Etxarri Aranatzeko bigarrena 30ean. Asteburu honetan, apirilaren 5ean Zangozan eta 6an Artikan eginen dira saioak. hauen ondoren Nafarroako finala ere ospatuko da, maiatzaren azken asteburuan edo ekainaren lehenengoan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Diru-laguntza ezberdinak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Kontabilitateak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- IVA eta IRPF
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Errenta aitortpenak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Itsasoa hurbilagot!



Txitxarroa, berdela
berdin izokia
Bardben finalean
hartzazu tokia!

948 630 981 · 620 828 757
Itzea, 6 · BERA · NAFARROA



DONEZTEBE

KULTURA → APIRILAREN 4AN ABESBATZAREN KONTZERTUA ELIZAN

Asturiasen saritutako emanaldia herrian eskainiko du Mendik

Kontzertuan musika mota aunitz landuko dituzte, tartean sakroa eta pop doinuak

TTIPI-TTAPA

Badira hilabete batzuk Mendi Abesbatza Asturiasko Avilés herrian izan zela, Nazioarteko XXX. Abesbatzen Txapelketan parte hartzen. Opari ederra ekarri zuten handik, izan ere, Bigarren Saria lortu zuten txapelketa entzute-tsu horretan.

Orain, jaialdi hartarako espreski prestatu-riko lana etxean eskaini nahi dute. Bost obra eskaini zituzten Avilésen, tartean Asturias aldeko bi doinu ere bai: Lehiaketan abestea nahitaezkoa zen *Fila... Finlandera* eta *Si La Nieve*



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteritako karroza eta mozerro saridunen jabeak, udaletxeko sari banaketan.

Resbala kantu hunkigarria.

Kontzertua osatzeko, hainbat doinu eskainiko dituzte, musika sakrotik hasi eta pop doinu ezagunak nahasiz.

Hitzordua apirilaren 4an izanen da, ortzira-lean 20:30ean elizan.



Ba al zenekien

Mallerreka, Bertizarana eta Basaburua Ttikiko Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena apirilaren 5ean, 19:00etan eginen dela zineman

ZINEMA → APIRILAREN 13AN

Denboraldiko azken emanaldi solidarioa Berako Enaitzen alde izanen da

TTIPI-TTAPA

Zinemaldiaren bukaera apirilaren 13an izanen da eta egun horretan sarrekin bildutako dirua Berako Enaitzen familiarentzat izanen da. Emanaldi solidarioa prestatu dute Mendaur eta Erreka guraso elkarteek. Azkeneko emanaldi honetan bi filma eskainiko dira: *Txoriburuak*, 16:30ean eta *Las brujas de Zugarramurdi*

18:30ean. Sei hilabetez 26 pelikula pantailaratu dira (13 umeendako, horietatik 8 euskaraz, eta bertze 13 gazte eta helduendako). Aurten guraso elkarteek apustu handia egin dute euskararen normalizazioaren alde, euskarazko pelikulak ugartuz.

Bildutako diruarekin proiektore berria erosi da emanaldien kalitatea hobetzeko asmoz.



Pertsonaia

Modesto ORDOKI

Kenpo Kaiko 3. DANa lortzen lehen nafarra

Otsailaren 22an egin ziren Eskoriatzan estatu-ko kenpo azterketak eta Ordokik gerriko beltzeko hirugarren DAN gradua lortu zuen, Sensei edo maisu titulua. Nafarroa osoan maila hau lortzen duen lehena izan da. Etxalar, Elizondon eta Iturenen ematen dituzten klaseak Ordokik.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA 18€

HAURRENTZAKO MENUA 10€

Eta gainera...

- ENTSALADAK
- SASOIKO BARAZKIAK
- PASTA FRESKOA
- PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028 DONEZTEBE www.ameztia.com

AZPIEGITURAK → PROIEKTUA ONARTUA DAGO

Araztegi berriko lanak berandu gabe hastea espero da

373.631 euroko aurrekontua eta egunean 37 metro kubiko iragazteko gaitasuna izanen du

Araztegiak "bakteria gune eta ezegune artifizialen" sistema erabiliko du eta egunean 37 metro kubiko iragazteko gaitasuna izanen du. Lanak egiteko epea sei hilabetekoa izanen da, eta aurrekontua berriz, 373.631 eurokoa da.

Joseba URROTZ

Aspaldixko onartu eta argitaratua da araztegi edo depuradora berria egiteko proiektua, baina oraindik ez dago lanak hasteko data zehatzik, berandu gabe hasiko direla espero bada ere.

Gazteek sagardotegira ateraldia

Herriko gazteek ere egin dute Gipuzkoa aldera bisita, hango sagardo eta parranda giroa dastatzeko. Martxoaren 15ean, hamalau lagun elkartu ziren,



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederrean ibili ziren herriko gazteak sagardotegian.

DATUA

37

METRO KUBIKO
ur iragaziko ditu egunean araztegi berriak

ez autobusa osatzeko adinako taldea, baina bai bi taxi betetzeko. Etxeberria sagardotegian bazkalduta eta gero Hernaniko giroan ederki murgildu ziren, ez dago dudarik ongi pasatu zutela. Hori erakusten du bederen argazkiak.

Urrotz araztegia
 Birrante kopurua: 190. Sistema: Bateria ohreko sistema artifiziala. Egungo araztegi berriz 0,43 litro segunduko (37 m³/egun), Geroa 1,03 litro segunduko, Araztegiaren onar duteleko handiena 3 litro segunduko.
 Egungo araztegi sistema: lehen mailako tratamendua, hazi bidekoa (erabiltzen gabeko). Leuko ogiaren gabea: 6 hilabete.
 Proiektuaren aurrekontua: 373.631,30 €.

Depuradora Urroz de Santesteban
 Población: 190 habitantes. Tratamiento proyectado: Distribuidor de agua sobre lecho bacteriano y humedal artificial.
 Capacidad: media 0,43 litros/segundo (37 m³/día), punta 1,03 litros/segundo, nivel máximo admisible en planta 3 litros/segundo.
 Tratamiento actual: fosa séptica (en desuso).
 Duración de las obras: 6 meses.
 Inversión: 373.631,30 €.

UTZITAKO ARGAZKIA

Araztegi berriko obraren kartelak jarriak daude. Orain, lanak abudo xamar hastea espero da.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2014 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA
 edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → GURASO ETA IRAKASLEEN LAGUNTZAZ 21 BAT JARRI DITUZTE

Txoriendako kabiak paratu dituzte Pulunpako ikasleek eskola inguruan

Juan Goñiren laguntza izan zuten paratzeko eta orain barnean zer gertatzen den ikusteko aukera izanen dute

Arkaitz MINDEGIA

Udaberria hasi baino lehenago Pulunpa eskolako guraso, ikasle eta irakasleek txorrientzat kabi batzuk prestatzen aritu dira. Jo eta su elkarlanean sortuz, 21 bat kabi egin dituzte. Eskolatik hurbil dauden zuhaitzetan paratu dituzte, honek aukera ematen baitie bertako jendeari, nahiz eskolako ikasle eta irakasleei kabi horietan zer gertatzen den ikusteko eta testigu izateko. Duela bizpahiru aste jarri dituzte kabiak, txorietan aditua den Juan Goñi arduradunaren laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Sein, Seguros Bilbao taldearen aurkezpenearan.

Haur kantari jaialdian Pulunpa eskolakoak

Martxan hasi da aurtengo haur kantari jaialdia. Martxoaren 29an Beran egindako lehen saioan eskualdeko haurrak elkartu ziren eta Pulunpa eskolakoek ere parte hartu zuten. Hiru taldek kantatu zuten. Lehen zikloko Joaldun taldeak *Euskararen koloreak* abestu zuten; bigarren zikloko Mariatxi

taldeak, Etzakit taldearen *Eskurik esku* abestia eta hirugarren zikloko Urretxindor taldeak Txomin Artolaren *Aberriaren mugak*.

Jubeniletan ere ederki Jabier Sein

Aurreko alean esan bezala herriko btt-ko txirrindulariak jubeniletan kategorian hasi du denboraldia. Dagoeneko hainbat karrera korritu ditu Jabierrek, denetan

bere maila erakutsiz. Berriki Vallalodiden izan zen Nafarroako selekzioarekin Espainiako Openean larte hartzen. Postu ederra egin zuen, 46. lekuan atera eta helmugara 16. postuan sartu baitzen. Orain, azkeneko karrerak, Rural Kutxaren kopan korritu eta korrituko ditu, Joan den astean Cascanten egindakoan bigarren geratu zen eta datozen egunetan Argedasen korrituko du.

MALERREKA

Malerreka Kantuz Oizen eginen da larunbatean

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskara Batzordeak antolatzen duen Malerreka Kantuz saioa Oizera ailegatuko da apirilaren 5ean. Larunbat eguerdian gelditu dira plaza. Musikaren laguntzaz kantuan aritu eta gero hamaiketako xume bat eskainiko zaie kantatzera hurbiltzen direnei.

Janari manipulatuak ikastaroa

Janari manipulatuak ikastaroa eskainiko da apirilaren 2an, asteazken arratsaldeko 4etatik 8etara Doneztebeko Alhondigako erakusketa aretoan. Izen ematea 948 122523 telefonon.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Jar ezazu zure erakundearen osasuna APMren esku!
Nafarroan 15 urteko esperientzia prebentzio-lanetan dugu gure alde!

- Lan-arriskuen prebentzioa
- Osasunaren zaintza
- Prestakuntza
- Errendimenduaren Kontsultoretza

Egoitza Nagusia: Iruña,
Monasterio de Allox, 2
948 26 4915
apm@apmprevencion.com

APM
Prebentzioa

www.apmprevencion.com

ZUBIETA

GIZARTEA

KULTURA → APIRILAREN 3AN

Literatur solasaldia Garbiñe Ubedarekin

Ortzegun arratsaldeko 7etan elkartuko dira estalpean 'Hobe isilik' liburua hizpide dutela



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Fermin ETXEKOLONEA

Aprilaren 3an Literatur Solasaldia antolatuko du Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* liburuz arituko dira eta solasaldian autorearen presentzia izanen dute liburuaren inguruko azalpenak emateko. Saioa Zubietako estalpean izanen da eta ortzegun arratsaldeko 7etan hasiko da. Orain arteko saioetan bezala, idazlearekin elkarriketa interesgarria izateaz gain, afari-berendutxo bat egiteko tartea ere hartuko dute.

Kazetaritzan ibilbide luzea duen arren, hauxe du Garbiñe Ubedak lehen saialdia fikzioaren munduan, eta azpimarratzekoa da testuaren kalitatea, estilo landu eta dotorea, baita pertsonaien taxuera ñabarraz betea ere. Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Augustin Zubikarai beka-sariaren irabazlea izan zen nobela-proiektu hau.

Fikzioaren munduan lehen saialdia izan da liburu hau Garbiñe Ubeda kazetariarentzat.

egiteko bideo grabaketa egin da eta tartean Zubietan ere irudiak hartzen ibili ziren. Emaitza nolakoa den ikusteko, apirilaren 5ean, larunbat arratsaldeko 7etan Doneztebeko zinemaren eginen den ekitaldian parte hartzeko gonbidapena ere egin dute.

Azpeitia-Azkoitia lasterketa

Urko Loiarde, Dabid Juanikorena eta Joxemari Indakoetxeak parte hartu zuten Azpeitia-Azkoitia lasterketan. Joan den urteko Behobia-Donostia probaren aitzakian hasi ziren lasterka egiten eta oraindik eusten diote.

Egur loteak Saroberrin

Egur loteak berriz ere aterako ditu Udalak herritarrendarrako. Saroberrin inguruan izanen di-

ra. Aurten, kamioi guztiak pisatuko dituzte eta pisuaren arabera ko-bratuko da. Kamioi osoa hartzeko aukera eskainiko da aurtengoan, baina hori egiten duenak heldu den urtean ez du lotea hartzerik izanen.

Herriko Ostatuaren urteurrena

Martxoaren 22an bazkaria egin zen Herriko Ostatu Juliak hartu zueneko urteurrena ospatzeko. Giro onean joan zen ospakizuna, kantu eta musika artean.

Joaldunak Luzaide-Arnegiko kantu zaharren egunean

Joaldunek Luzaide-Arnegiko Benta Peioko Kantu Zaharren egunean parte hartu zuten, Angel Mariezkurrenaren eskutik. Zortzi joaldun joan ziren herritik.

Ba al zenekien

Arkupeak elkartaren bidez herriko hiru jubilatuak Valentziako fallak ikusteko eta ingurua ezagutzeko aukera izan dutela

BAIGORRI → APIRILAREN 27AN

Nafarroaren Eguna girotzeko Kulturaldia antolatu dute aurten ere

Haur, gazte eta helduentzako ekitaldiak prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, apirilaren Kulturaldia antolatu du Baigorriko Basaizea Kultur Elkartek, «gure arbasoen altxorra den euskara eta nortasunaren aldarrikatzeko hitzordu nagusia». Hilaren 27an Nafarroaren Egunarekin borobilduko dute egitaraua, baina aitzinetik hainbat ekitaldi izanen dira.

Aprilaren 11n presoen aldeko gualdia antolatu dute Bixentainean. Presoen aldeko elkarretaratze bat egingen dute lehenik plazan, ondotik zintzur bustitzea txaranga-ekin, eta Donostiako On rock taldeak kontzertua eskainiko du gero. Gualdia bukatzeko DJ Xabi izanen da.

Biharamunean, hilak 12, Ukrainiako Lviv hiriko dantza taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izanen da. Ez da dantza talde soila, elkartasun

keinu bat ere egiten baitu Ukrainiako hiru umezurtegi lagunduz. 21:00etan izanen da Plaza Xoko gelan. Sarrerak erreserbatzeko (0033) 610971084ra deitu behar da. 12 eurotan dauke helduentzat eta 8 eurotan haurrentzat.

Aprilaren 18an *Herrian bizi, herrian bizi arazi...* lelopean gogoeta gualdia antolatu dute. Lasako gelan izanen da 20:30etik goiti.

Aprilaren 19an, Alain Urrutia, Andoni Egaña, Oier Guillan eta Rafa Ruedarekin Grabieli Arestiri eskainiko hitzordua antolatu dute. Bil Etxean izanen da 19:00etan.

Aprilaren 22 eta 23rako hauraren eguna prestatu du Basaizeak. Hilaren 23an, erraterako, mendi ateraldia, eskulanak, jokoak... izanen dira.

Aprilaren 26an Mikel Laboaren kantak aditze-ko aukera izanen da plaza xokon, 21:00etan. Biharamuneko Nafarroaren Egunarekin emanen diote bukaera aurtengo Kulturaldiari.

ETXARTE bitxi-denda

ttipi kartela

%10eko DESKONTUA

Gure esku dago grabaketa

Gure esku dago ekimenaren aurkezpena

MALERREKA

GIZARTEA → APIRILAREN 15EAN

Eskola ttikien Joku topaketak 206 ikasle bilduko ditu Sunbillan

Laugarren urtez Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa eta Narbatekoak elkartuko dira

Maider PETRIRENA

Malerrekako IV. Joku Topaketa egingen da apirilaren 15ean Sunbillako frontoian eta Ma-

lerrekako sei eskola ttikietako (Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbarte eta Sunbilla) 204 ikasle elkartuko dira.

Goizeko 9:00etan ongi etorria egingen zaie ikasleei eta hiru taldeetan banatuko dituzte, adinen arabera.

09:15etik 13:00etara ekintza ezberdinak egingen dituzte, hiru taldeak txandaturaz. Hone-lan, batzuk Herri kirolak



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Sutea Beintza-Labaiengo Alkozondo eta Burgergain aldean

Martxoaren 14ko arratsean Alkozondo eta Burgergain aldean sua izan zen. Argazkian suaren indarra ikus daiteke.

egiten dituzten artean, bertze batzuk Ipuin kontalaria-magoa izanzen dute ingelesez eta hirugarren taldeak Plastika tailerra izanzen du. 13:00etan bazkaria izanzen dute. 14:00etatik 15:45era Mahai Joku tailerra egingen da eta 15:00etatik 16:00etara Kalejira.

KIROLA → JOXE EZKURRA XXIV. MEMORIALA 108 bikote hasi dira lehian

Josetxo Ezkurra zenaren omenez hogeita laugarren aldiz antolatu da pilota txapelketa. Aurtun, Ezkurra familiaren eta Doneztebeko Udalaren eskariz, Erreka elkarte arduratu da antolaketaz. Martxoaren 23an, jokatuko zituzten lehenbiziko partidak eta finalak Doneztebeko bestetan izanen dira. Guztira 108 bikote ariko dira, bertz kategoriatan banatuak.

HERIOTZA → BEINTZA-LABAIEN

Joxentonio (Otxone), nere laguna eta lehengusua

Pello (Boroso)

Gogorra, aitz gogorra izandu duk, hi hemen dik abiatzen ikustea bertze alderdira. Aurrea hartu diguk denori, egun batian irri ta farra, Xuiteneko Jose Luiseri, Saldisetik, zeinek lehen itzuli, bat mendiz, ta bertzia bizikletaz, aurrea hartu iun bezala, orain ere, berdin egin duk.

Atzean utzi gaituk. Gizontasunen arauak ongi ikasia iaitzen. Hortan, maisu onak izandu ittun. Aita eta ama, oso onak. Inori irrik ez, inori kalterik ez, inon bizitzan sartu ez eta deneri lagundu. Eman zaigun agindurik haundiena, hiretzat hartu iun. Lagun urkoari errespetua ta harremana ona.

Aisa, erraza hirekin konpontzea. Edozein gauza erraten giñin eta ez hitzen haserretzen. Elkartean edozein gauza eskatu, "Joxentonio, atera zak akeita, patxarana eta aorrentia", "oaintxe bertan" hire erantzuna, hi beti prest. "Joxentonio, baratza irauliko al diak?, noiz nahi duk?", hi beti prest lanerako.

Mahai gizona, alaia, behin ere ez harrokeriarik ta zalapartarik. Euskal lurra, hizkuntza,

herria eta batez ere Otxonea mattia ittun. Hire alapideak, Otxoneko lehengo zahar edo arbasoenak: Ipuria, Sarasola, Ello aldea,...

Beti hor ikusten zaiken hire lanetan. Hi ikusten izandu nintzenin, banakiken azkeneko aldiz egongo nitzela lur hontan hirekin ta nahigabea naukiken, biño poza bat izandu nin, hire hiloba Cristinak eman zereken. Neskateko gaztia izanik, etxeko andre baten modura ikusi nin lanak egiten, eta erran nin niretzat, "hire lanak ezttuk alferrik izan Joxentonio, ta hik utzi behar duken hutsa, hemendik urte batzuetara, neskatere honen beteko dik Otxonen".

Herrian ere, bat alkate edo bertzia zinegotzia, hik beti lagundu, herriko bestetan, auzo-lanean, eta abar. Tankera hortan hik ez huen gure ahuleria edo barrengo borrokak. Aisa huen irekin lanean aritzea, oroitu nauk belar denboran Olaitzen, Karaten, Ipurin, ta ordundik otordua egitera Otxonera. Azkenekoa, elkarrekin Ipurin, ardiak moztuta Txispeko Joxe han zela, argazki zaharrak ikusiz. Gero ezbehar hori azaldu zaiken, biño gure eliz amak erraten dun bezala estualdian sen-



do ikusi nin.

Lehengo zaharrek deitzen zioten "urtzi" edo "iao on goikoa" (jangoikoa), deitu dik ortzialdetik, ta nahiz eta guk adimendua ez izan onartzeko, jakinduria berea duk. Aspaldiko ohitura dik hi bezaleko gizon apal eta onak eramateko.

Oraintzik alderdi hortara, batez ere Itturneko Juanitori. Garai bateko lagun talde giro artean, hik utziduen hutsa bera hautestu giñin ta.

Etxeberriko Anjel, azkenerarte egon iun, olagorrekin otordua elkarrekin egiteko. Ez genuen ahalbide horrenik izan. Beti irri ta farra, gizartearentzat berdintasuna eskatzen huen, ondasunak nola bildu ala banatu. Ze gauz hoberik, gaurko denborak ikusirik.

Ta uste dit Joxentonio, osasunek eutsiko diola lehenbiziko mailari. Ezin badu, alderdi hortatik esku bat bota ezaiok. Betirarte Otxone.

OSPAKIZUNAK → 32 BIKOTEREN ARTETIK

Arantzarrak musean txapeldun

CANeko aferari buruzko hitzaldiak eta loaren inguruko ikastaroa prest

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 13an Hondarribian jokatu zen mus txapelketako finala. 32 bikoteren artean atera dira aurtengo irabazleak eta txapeleak aurten Arantzarako bidetara hartu dute. Goizeko hamarretan hasi ziren partidak, Hordago! tikira, handira... joz, lehia bizia izan zuten bikoteek azkenera arte. Arantzako Jesus Mitxelena eta Fermin Etxeberria izan dira irabazleak eta Alejandro Cordoba eta Jose Martin Iturralde azpilkuetarrak bigarren izan ziren. Oronoz-Mugairiko Luis Mari Elizaintzin eta Angel Sarrateak eskuratu zuten hirugarren postua eta Pantaleon Errandonea eta Bonifacio Oskoz arantzarek osatutako bikotea laugarren izan zen. Guztiek eskuratu zituzten garaikurrak, gazta eta lñurrieta arandegiko ardo botilak oparitan. Musean partidak jokatzeko aitzakian, giro ederrean egin zuten bazkari legea.

HITZALDI ETA IKASTAROKAK

Martxoaren 13an, 28 pertsona bildu ziren Beran pentsioen inguruko azken hitzaldian. Orain

artekoen arrakasta ikusita, bertze hitzaldi bat ere antolatu dute. "El banquete" izena eman diete eta CAN en gertatutako aferaren berri jasoko dute hitzaldira bertaraten direnek. Ikastaro berri bat ere izanen dute aukeran: *Despertar con una sonrisa* izenburupean, loaren inguruan adinekoek izan ditzaketan zalantzak argitzen saiatuko dira. Caixaren gizarte-ekin-tzaren laguntza jaso dute ikastaro hauek antolatzeke eta sei orduko iraupena izanen dute. Informatika, memoria lantzeko ikastaroa, senda belarrena eta frantses ikastaroetan ere gogotsu ari dira lanean.

Martxoaren 24an, 55 bazkidek Valentzia inguruak bisitatu zituzten. Martxoaren 26an berriz, mendizaleek Doneztebe inguruan mendi buelta bat egiteko asmoa zuten eta 279 bazkide Donostiara joatekoak ziren, eguna Aginagako sagardotegian giro bikainean borobilduz.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian, aurtengo mus txapelketako irabazleak, sariak eskuetan dituztela. Erdian, Beran pentsioen inguruan egin ziren hitzaldietan parte hartutakoak. Behekoan, leitzarrak informatika ikastaroan.

Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

KIROLAK ZELA

**%5eko
DESKONTUA**

DONAMARIA

KIROLA → MARTXOAREN 15EAN

Denboraldiko lehen ateraldia egin du Ibargoiara Mendi Taldeak

Nabarra osoa eta librearen egiazko ikurra jarri dute Garmendiko tontorrean

barra osoa eta librearen egiazko ikurra jarri dute Garmendiko tontorrean. Mendi itzuli ederraren ondotik, indarrak berriro hartzeko, Donamariako ostatuan bazkaria izan zuten. Mila esker bertaratu zineten guztiei!!!

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Martxoaren 15ean, Donamariako 26 lagun elkartziren mendietan barrena beraien aztarna uzteko. Hala, Donamariako Ibargoiara Mendi Taldekoek denboraldiari hasiera eman diote, urtero bezala Ibargoiarako muga zaharren itzulia eginez.

Aldarrikapena alde batera utzi gabe, Na-

Emakumeen afaria

Martxoaren 8an, Donamariako emakumeek afari ederra egin zuten Herriko Ostatuan Emakumearen Eguna ospatzeko. Primerako afari eta giroa izan zuten Donamariako emakumeek. Espero dugu ohitura on hauek inoiz ez galtzea! Segi hain animosak izaten!



ARGAZKIA: IZASKUN G.T.

Ibargoiarako mendizaleak, Garmendiko tontorrean.



ARGAZKIA: IZASKUN G.T.

Emakumeak bere eguna ospatzen Herriko Ostatuan.

Asteburu kulturala prestatzen

Martxoaren 21ean bile-

ra izan zen asteburu kulturalari buruz hitz egiteko. Deia luzatu diete herritarrei edozein eki-

taldi egiteko ideien bat baldin badute proposamena egin dezaten, ideaiak behar dira eta.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GIZARTEA →

Jendea ari da gaztak egiten

Urte hasieratik gaztak egiten ari dira bat baino gehiago

Markel LIZASOAIN

Garai batean etxe gehienetan egiten izanzen ziren gaztak. Ardiak, behiak edo ahuntzak ere ia etxe guzietan izaten baitziren. Gaur den egunean, azienda asuntua bajatua dago, eta askok ez diote esnerik ere kentzen animalari, lan handia baitu. Horren harira, etxeko andre batek aurre horretan esaten zidan: "Baserritarrak alfertuak gaude, Markel!". Beharbada, gehiago izanen da lehen lan asko eginak eta orain deskantsua ongi irabazia duzuela, eta, hala ere, inor baino langileago! Alde guzietara ere, bere ardiak jertzita nahiz besteri esnea erositako edo tratua eginda, gaztak egiten ari da aurreten ere bat baino gehiago. Alde-alde, honela: lehenik, esnea irazi, eta epeldu; gero, zazpi-zortzi litrorentzat gatzagi kuxaretxo bat nahasi,

ongi-ongi, eta gatzatzen den arte utzi (40 bat minutu); gero, ur berotan sartu eltzea, eta, behatza baino beraxeago jartzen den bitarte, makil batekin edo zerbaitekin, marratu eta koardroak egin. Gero, koardro horiek txiki-txiki egiten dituzte, papurtu arteraino. Bere tenperatura hartzen duelarik, eduki pixko bat. Momentu egokia izan daiteke gatz puska bat botatzeko. Gero, bi eskuak sartuta, papurrak bildu, eta gazuratik bereiziz joan behar du, eta pixkan-pixkan pilota bat formatzen; pilota hari, gazta forma eman behar zaio eltzean bertan, pixkana-pixkana. Zimitza lehendik behar du prest, bere trapu edo gasarekin, abatsaren gainean edo ahal den bezala, gazura arraka ez aritzeko. Zimitzaren tamainara ekarri duelarrik, han sartu, eta eskuarekin zapatu. Gero, gainekeo tapa paratu, eta, prentsa nolakoa den, batzuek ordu bat edukitzen dute, eta gero zimitzat ateratzen, buelta emateko; berriz



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazta berria.

ere, prentsan sartu, eta egun erdi bat-edo edukiko dute hartan. Gero, prentsatik atera, eta gatz uretan edukitzen dute beste egun erdi bat, edo hola. Uretik atera, trapu baten gainean eduki, pixko bat idortu artio, eta gero alase batean paratuko dute, berderen 40ren bat egunez, inoiz behinka buelta emanaz.

GATZAGIA

Gaur den egunean, dendan erosten da gatzagia, baina lehen bildotsaren estomakatik ateratzen zen. Belarrajaten hasi gabekoa behar zuen; bildotsa hil eta estomaka atera, bi muturrak lotu eta zintzilik paratzen omen zuten, idortu artio. Idortzen zelarik, ireki, barrango zer hori trapu batean bildu (bes-

te batzuek estomaka bere biltzen izan behar zuten trapuan), eta esnetan sartu-atera ibiltzen zuten, gatzatzen hasia zela igarria eman arte.

BESTE PRODUKTU BATZUK

Sobran gelditzen den gazura horri oraindik gelditzen zaio sustantzia. Eta egosten paratzen dute, errekesona ateratzeko, irazkiarekin edo zurezko pala gisako batekin. Errekesona kenduta gelditzen den gazura, berriz, zerriei emateko ohitura izaten da, baina denboran, edan ere egiten omen zuten etxe batzuetan, besterik ez bazen.

Horretaz landara, gaztanbera ere egiten da gazta egiteko esne aski ez bada edo sobran gelditu den esnea-

rekin, edo, bestela, propio horretarako esne pixko bat berezita. Alde batetik, esne hori berotu, eta pozal batera bota, eta, beste alde batetik, esnearria edo aizkora buru zahar bat suan eduki, gorritu artino. Gero, esnea dagoen pozalera bota, eta indarra galdu duelarik, irazi esnea eltze batera; hozte- ra utzi eta bere tenperatura hartu duelarik, gaztanbera tanta batzuk bota. Berehalaxen, zer ontzitan nahi dugun, hara irauli esnea, segituan hasten baita gatzatzen. Beste produktu bat, zenbait etxetan egiten dena, gazta mina edo beratxa da. Esnea pixko bat nahasita egiten izan behar du; xuxen nola egiten den ez dut ikasi, baina ogiarekin jaten bai!

 ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak..

inprimitzen ditugu

EZKURRA

GIZARTEA → BARRANKAN MARTXOAREN 22AN

Basurde afaria egin dute herriko eta Goizuetako ehiztariek

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurrako eta Goizuetako hogeitaherriko bildu ziren martxoaren 22an Barranka ostaturako basurdejatean, denboraldi bukaera ospatzeko. Urte ona izan da bi herritako ehiztarien zitat, 12 basurde eder bota baitituzte. Azkeneko dastatu ahal izan zuten, Jose Luis sukaldariak ederki prestatuta.

Txantxangorri elkartean biltzen diren 60 ehiztariak aipatu dutenez, uso sasoi txarraizan da aurtengoa, oilago-

rrena bikaina, bilgarroak beti bezala ausarkia eta basurdeak normal.

Urteko azken elurtea?

Martxoaren 23an elurra ederki bota zuen. Urte honetan lehen aldiz estali ditu elurak teilatuak, bideak eta errepideak. Herritar batzuk hasiak ziren baratzeak lurrak prestatzen eta ikusi behar elurra eta hotza kalterako diren. Erakurri eta Ezkainen sasi erretzen ere ibiliak dira eguraldi ona aprobetxatuz.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian, Ezkurra eta Goizuetako ehiztariak basurdea jaten. Behean, martxoaren 23ko elurak bazterrak nola txuritu zituen ikus liteke.

ERATSUN

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 8AN

Afari bikaina egin zuten Emakumearen Egunean

Karaokea ere izan zuten

Loli OTXANDORENA

Martxoaren 8ko Emakumearen Eguna zela eta afari bat antolatu zen herrian. Urtero saiatzeko dira ostaturako-

ak dena antolatzen eta afari goxoa egiten, menu sorpresa bere kontu, eta beti zerbait originala prestatuz. Emakumeak denak kontent zeuden, ongi merezitako eguna ospatzen. Gainera mutilak izan zitezuten zerbitzari, Juan



ARGAZKIA: LOLI OTXANDORENA

Bistan denez, giro ederrean egin zuten Emakumeen Eguneko afaria.

Miguel eta Patxi Mariezkurrena. Umore onean afaldu eta gero lehendabiziko urtetan bingo antolatzen zuten, eta linea edo bingo kan-

patzen zuenak, Elgorriagako bainuetxerako bi txartel izaten zituen opari. Azkeneko urte hauetan karaoke bat jartzen dute mahaiko guztiek

kantatzeko eta oso giro polita sortzen da. Emakume koadrila elkartzen da eta ospatzeko eguna da. Aupa Eratsungo emakumeak!

GIZARTEA → ELKARTEAK BATZARRA EGIN ZUEN MARTXOAREN 15EAN

Zuzendaritza batzordea berritu du Umore Onak

Udaran elkartearen kanpoko aldean mahaiak jarriko dituzte

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean Umore Ona elkarteak bere urteroko ohiko batzarra burutu zuen. Bertan, besteak beste, zuzendaritza batzordea berritu zuten. Bi urtez lan egin ondoren Igor Elizegik, Auxtin Elizegik, Txema Apezetxeak, Maite Alsuak, Ibon Elizegik eta Unai Mirandak bere karguak utzi zituzten, eta beraien orde zuten Jon Uitzia, Ester Tomasena, Beñat Lekuo-

na, Juan Loiarde, Aritz Zubiri, eta Urtzi Irazusta sartuko dira lanera.

Gainera, aho-batez onartu zen bazkide izateko zeuden sei eskarei baiezkota ematea.

Batzarrean hartutako beste erabaki batzuk: prezio batzuk egokitzea, udaran elkartearen kanpo aldean mahaiak jartzeari, bazkideen urteko bazkaria 10 euro kobratzea eta urtean behin, urte horretan hildako bazkideen eskela bat jartzea.

Iralekuen inguruko bilera ostiralean

Iralekuen inguruko bilera garrantzitsua deitu dute apirilaren 4ean. Ostiral arratsaldeko 7etan udaletxeko gan-

baran bilduko dira gaia lantzeko. Bilera irekia da eta zenbat herritar elkartuko diren jakiteko, eskertuko dute 012ra edo udaletxera deitu eta izena ematea.

Goizutrail mendi lasterketa maiatzaren 17an

Lehen aldiz Goizutrail mendi lasterketa antolatu du Umore Onak. Maiatzaren 17an izanen da 21,6 kilometro luze eta 1.512 metroko desnibela izanen duen proba gogorra. Izena eman daiteke kirolprobak.com webgunean. Izen ematea 20 euro izango da. Herrian erroldatuentzat 15 euro. Egunean izen ematen dutenek 25 euro. Bezperatik etortze-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Zizurren txapeldun eta azpitxapeldun

Martxoaren 15ean jokatu ziren Zizurko pilota txapelketa famatuko finaletan bi herritar izan ziren. Antton Apezetxeak, 2.000. urtekoetan, 12-16 galdu zuen Amezketako Zubeldiaren kontra. Iker Salaberriak, 1999. urtekoetan txapela irabazi zuen, Lazkaoko Zubizarretari 18 eta 4 irabazita.

ko aukera ere badago Zubimuxu aterpekegin duen eskaintza hartuz

gero. Afaria, gaua eta gosaria eta izen ematea 50 euro gostako da.

ARANO

HITZORDUA → APIRILAREN 11N

Hirugarren arkume jatea antolatzeko bilera deitu du Festa Batzordeak

Aranoko turismo plana ere bileran aurkeztuko dute

Ainhoa ANSA

Aurtengo Santio festa prestatzen hasia da Festa Batzordea eta

horren baitan, aurreko urteetan arrakasta handia izan duen arkume jatea antolatzeari ekin dio. Bazkari hori antolatzeko herritarren laguntza ezinbestekoa denez, herritarrek bilerara batera deitu ditu xehetasunak adosten joateko. Apirilaren 11n izango da, ilunabarrean, San

Roke elkartearen. Ez da bilera hutsa izango, izan ere, afari lege batekin egingo baita.

Bide batez, herritar dezente bertan izango direnaren aitzakiarekin, Udalak eskatuta eta herritarrekin egindako bileretan bildutako hausnarketak kontuan hartuz, Bizi-Bizi enpresak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurreko bi urteetan arrakasta izan du Santio festetako arkume jateak. Aurtengoa ere ongi atera dadin lanean hastekoak dira.

Aranoren inguruan egin duen turismo plana ere

aurkezteko dute herritarren aurrean.

LEITZA

EKITALDIAK → APIRILEKO LEHENENGO ASTEAN

Atekabeltz herrigunea indartzeko ekimen ugari

Herrigunea eragile eta taldeen bilgune izatea nahi lukete

JM BARRIOLA

Atekabeltz herrigunea indartzeko azken urteetan egindako apustuari eutsiz, ekimenak antolatzen segitzen dute. Asko dira orain arte egindakoak, otsailean izan zen Esne Beltzaren kontzertua adibidez; asko etorriko direnak Kultur Aroan esaterako eta baita dagoeneko abian den Atekabeltz herrigunearen pesta ere. Apirilaren 1ean, Kolonbiari buruz Askapenak eskaini zuen hitzaldiak eman zion hasiera herrigunearen pestari. Apirilaren 3an, 19:00etan beste hitzaldi interesgarri bat izanen da, Bizitokiren eskutik: *Bizitoki, euskal eskola alternatibo bat naturan* gaia landuko baitute. Apirilaren 5a, larunbata izanen da egunik indartsuena, goizean goizetik hasi eta hurrengo eguneko goizeko orduko tikiak arte luzatuko baita pesta. Goizeko 11:00etatik aurrera umeentzako jokuak antolatu dituzte Atekabeltzen. 20:00etatik 22:00etara bokatak erosteko aukera izanen da eta 22:30etik aurrera kontzertuen txanda izanen da. Sarrerak 7 euro kostako da eta Muxubeltza,

Damba, Glaukoma eta DJ Bull ariko dira. Apirilaren 6an, 17:00etan zinean Kukubiltxoren *Leihotik mundura* ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da eta ondoren txokolatada eginen dute plazan. Zinemara sartzeko haurrek 3 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 5 euro.

Atekabeltz herrigunearen pesta antolatuta, bi urtez ospatu zen Atekarock jaialdiari segida emanen diete. Kiroldegi-ko jaialdi erraldoiaren orde, Atekabeltz gunea bera bilakatuko da pestaren erdigune. Herriguneko Elkarteak azpimarratu du Atekabeltz herriko eragile eta talde ezberdinak biltzeko gunea izatea nahi luketela, hitzaldiak, ikastaroak, bertso saioak, bilerak, eztabaidak, langabetuen asanblada... bertan egiteko aukera emanaz.

Inposaketen aurkako taldea martxan

Inposaketaren aurkako taldea osatu da eta ekimenak antolatzen ari dira. Jakina denez Espainako estatuko bandera Udalean ezartzeko prozesua bukatu ondoren, epaiaren agindua dago eta laister ejekutatuko dute inposaketa hau. Martxoaren 26an Udal batzarrean onartu zuten Taldeak proposatutako mozioa, ekimen ezber-



ARGAZKIA: PABLO FEO

Osasuna Fundazioak eta Udalak hitzarmena berri dute

Martxoaren 20an Osasuna Fundazioak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten aurreko urteetan bezala. Horren ondorioz, Nafarroako Futbol sedetako bat herrian izanen da. Herriko umeak kirola egin dezaten animatu eta laguntza eskaintzea da helburua. Osasuna Fundazioko ordezkari desberdinek bisitatu zuten herria, tartean ziren Oier Sanjurjo eta Ander Cantero jokalariek gazteak. Herriko ume eta gurasoen interesa piztu zuen bisitak eta beraiekin solasteko aukera ere izan zuten.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Txistulari eguna ospatu zuten martxoaren 22an

Euskal Herri gutziko 90 txistulari etorri ziren Leitza martxoaren 22an. Txistularien Batzar Orokorra ospatu zuten herriko zineko aretoan, udatxean harrera egin ondoren. Giro ederrean aritu ziren txistulariak egun guztian zehar txistuaren soinua eta alaitasuna herrian barna zabalduz. Ostegunean kontzertu ederra eman zuten udaletxean Jose Inazio Ansorena, Aitor Arozena, Jon Irazoki eta Agustin Lascurain txistulariek, Leitza eta inguruko musika erreperorioa eskainiz.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Aurrerako infantil mailako A eta B taldeak Berastegin

Martxoko laugarren asteburuan Gazte Pestak ospatu zituzten Berastegin eta egitarauaren baitan futbol partiduak antolatu zituzten ostiralean. Aurrerako infantil mailako A eta B taldeak gonbidatu zituzten eta lagun arteko partidak jokatu zituzten.

MENDI IRTEERA → APIRILAREN 12AN

Gure esku dago ekimenaren alde mendi buelta antolatu dute

Pagozelai, Museo, Merku, Ulizar eta herrigunea lotuz

Juana Mari SAIZAR

Gure Esku Dago ekimenaren herri aurkezpena pasa den astean izan genuen, eta orain herriko lan taldeak ekaina bitartean giroa berotzeko herriaren ekintza ezberdinak antolatuko ditu. Lehenengo hitzordua apirilaren 12an jarri dute, larunbatarekin. Goizean mendi buelta egingo da Aresoko inguruetatik barna. Pagozelaitik abiatu, Museo, Merku eta Ulizartik bar-

na pasa eta herrigunera itzultzea da asmoa. Ondoren plazan frontenis txapelketa azkarra egingo da eta salda eta pintxoak dastatzeko aukera ere egongo da. Udalak ere pleno berezia egingo du Gure Esku Dagoren inguruan. Horretaz gain, goizean zehar salgai jarriko dituzte metroak, kamisetak, pegatinak... Festa giroa ziurtatuta dago herritar guztientzat!

Frontenis txapelketa

Udaberriaren sartu gara eta pesta batzordea segidan heldu ohi diren herriko festei begira ja-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Hizkuntza eskubideen inguruko saioa egin da

Martxoaren 26an, hizkuntza eskubideen inguruko saioa egin zen udal-tereko bilera gelan. Garbiñe Petriatl, Behatokiko zuzendaria, izan zen gurean eta solasaldi interesgarria sortu zen bildu zirenen artean. Saioaren helburua, hizkuntza eskubideak zer diren jakin eta hauek betetzean ez direnean herritarrek eskura ditugun baliabideak ezagutzea da. Hizkuntza eskubideen urraketa horiek salatzen, zalantzak argitzea, zoriontzeko, kezkatzen...zer egin dezaketen ere ikasi zuten.

ria dago dagoeneko. Gogotsu dabilta antolaketa lanetan eta egitaraua nahiko aurreratu omen dago. Iaz bezalaxe herritarrek izango dira pestetako protagonista eta ardatz. Jendearen parte hartzea bultzatuko da eta horretarako hainbat ikusizun eta ekitaldi prestatzen ari dira. Ekitaldi

horietako bat iaz estreinekoz egin zen frontelaketa izango da. Finala festetan jokatuko da eta aurretik abuztura bitartean frontenis sailkapeneko partidak jokatuko dira. Lehengo urtean bezala, asteburuetan plazan jokatuko dira partida hauek. Parte hartzaileek bitarte mixtoak osatu be-

hako dituzte eta bikoiteko 10 euro ordaindu beharko dira. Parte hartu nahi dutenentzat izen emateko orria Sastinean jarria dago. Naiara eta Unai Onsalo anai-arrebak izan ziren lehen dabiliko frontenis txapelketako irabazleak, ea aurten norbaitek kentzen dien iaz irabazita-ko txapelidun titulua!

KIROLA → LASTERKETAK

Leitzako XXXVI. Herri Krosa apirilaren 12an egingen da

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 12an arratsaldeko 5:30ean hasiko da Leitzako Aurrera kirol Elkarteak antolatutako XXXVI. Herri Krossa.

Kategoria ezberdinetako distantzietan dagokienez, benjaminek 800 metro egingen dituzte, alebin eta infantilek 2.500 metro, kadeteak eta juniorrek 5.000 metro, gizonezko senior eta beterranoek 10.000 metro eta emakumezkoek 5.000 metro. Inskribitzeko epeak irekita daude eta prezioak aurretik eginez gero 9 eta 10 euro bitartekoak dira eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko irabazlea, Raul Amatriain, Leitzako kaleetan.

egun berean 15 euro.
Informazio gehiago [www.ki-](http://www.kirolprobak.com)

rolprobak.com orrian aurkituko duzue.

Pediatra euskalduna eskatzeko sinadurak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, UEMAren eta euskalgintzako beste zenbait eragilerekin batera, mediku nahiz pediatra euskalduna eskatzeko ekimena antolatu du. Leitzaldean eta Urumealdean, zehazki, pediatra euskalduna izateko eskaera landuko da bereziki, eta horretarako gurasoen eskaera sinatuak bildu eta bideratuko dira. Apirilaren 11 bitarte bilduko dituzte sinadurak.

BAZTAN

GIZARTEA → LAU ASTEZ EGIN DA KANPAINA

Mediku eta pediatria eskualduna eskatzeko 65 sinadura bildu dira

Herritarren eskaera kontuan hartzeko eskaera formala eginen dio Udalak Nafarroako Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Orain aste batzuk abiatu zen *Mediku eskualduna nahi dut* kanpainaren orain artioke emaitzak baloratu ditu Udalak eta hemendik aitzinera egin nahi dituzten ekimenak ere aurkeztu dituzte.

Maitane Maritorea euskara eta kultura zinegotziak aipatu duenez, «osasun zerbitzua ematen duten langileak elebidunak izan daitezela eskatu da eta batak bat familia-mediku eta pediatria elebidunak eskatzera zuzendu da, horiek premiarik handiena dutenetako batzuk baitira». Lau asteetan 65 eskaera bildu dira. Eskaera kopuru adierazgarria da, «herritarren hizkuntza eta osasun eskubideetan gabetia handia erakutsi duena».

Jon Abrilek, UEMAko ordezkariak, oroitarazi duenez, Euskararen Legearen arabera Baztan eremu euskaldun delakoan dago eta horretan «herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitoren



ARGAZKIA: JOSE PUYOL

Gaita ikastaroko musikarien debuta Elizondoko karriketetan

Balleko Etxeak antolatutako gaita ikastaroko ikasleek debuta izan zuten martxoaren 22an Elizondoko karriketetan barna *Jo ala Joko* Baztango Gaitarien eskutik. Adin guztietako 12 gaita-jole eta 4 atabalarik parte hartu zuten. Egitaraua arraxumea izanagatik, ongi pasatzeko aukera izan zuten. Plazan kantu zahar bat jo eta gero karriketetan barna dianak, kalejirak, baltsak... jo zituzten. Emanaldi artistikoa akitzeko Txokotoko zubian Xabier Leteren Habanera jo eta gosari ederrarekin borobildu zuten goiza. Oroitarazi atabal ikastarorako apuntatzeko epea laister hasiko dela. Informazio gehiago telefono honetan 659 11 99 04.

tzen zaie. Legeak herritarrei aitortzen dizkiren eskubide horiek, ordea, Gobernuak berak ez ditu errespetatzen».

UEMAKO 14 HERRIETAN

Ondorioz, Abrilek Nafarroako egoera kezka-garritzat jo zuen: «UEMAko kide diren 14 udalerrietako bakar batek ere ez dauka oinarrizko osasun zerbitzua bere osotasunean euskaraz emateko bitartekorik. Pediatrei dagokienean, Nafarroako gure 14 udalerrietan 7 pediatria aritzen dira, eta horietatik 4k ez dakite euskaraz, hau da, haurren ia %100 euskalduna den eremuan, pediatrien %71k ez du haurrek egunerokoan darabilten hizkuntzarik ezagutzen». Familia medi-

kuen kasuan, hiru udalerrietan mediku erdaldunak daude. Eta horietatik batean, guztiak dira erdaldunak. Familia medikuen kasuan, ordezkapenen gaiak ematen dituzten arazoak normalean, izan ere, ordezkariak datozenean, gehien gehienetan erdaldunak izaten baitira. Baztanen erraterako, 6 medikutatik 2ri eskatzen zaie elebiduna izatea, Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoaren arabera, 8 erizainetatik 2ri eta bi administralaritatik bati. Pediatrari, berriz, ez zaio eskatzen elebidun izatea ere.

Garbiñe Elizegi alkatetik aipatu duenez, «herritarrek osasun zerbitzua euskaraz hartzeko duten eskubidea

bermatzeko Udalak Elizondoko Oinarrizko Osasun arloko zuzendaritzari elkarlanean aritzeko proposamena luzatu dio eta erantzunaren zain gaude».

Kanpaina honetan bildu diren eskaerei jarraituz egiteko asmoa adierazi zuen eta Nafarroako Gobernuari eskaera formala eginen dio herritarren eskaerak kontuan har ditzala eta Baztan bezala *Mediku eskualduna nahi dut* kanpaina egin den udalekin batera Nafarroako Gobernura eta Parlamentura joko du herritarren osasun zerbitzua publiko euskaraz hartzeko duten eskubidea bermatzeko aldera plantilla organikoan beharrezko aldaketak egin ditzaten.

CAMPUSAREN EREMUA

Lekarozko kalifikazio juridikoa ez aldatzea eskatu du Geroa Baik

TTIPI-TTAPA

Geroa Baik Lekarozko enpresa campusaren eremuaren kalifikazio juridikoaren aldaketaren proposamena bertan behera uzteko eta lurzati kalifikazioak Udalez Gaindiko Plan Sektorialean jaso ziren bezala gelditzeko alegazioa aurkeztu du.

Geroa Baik adierazi duenez, «Baztanek dituen ezaugarri ekonomikoak direla eta, duen inguruari egokitu-tako aktibitate ekonomiko berriak bultzatzea ezinbestekoa da. Ildo honetan, Lekarozko Kultur, Hezkuntza eta Ekonomia Ekimenetarako Eremuaren proiektua bailarako aktibo estrategikoa da, aktibitate sortzeko ahalmena duen tresna; hortaz, bailarak izan behar du bere kudeaketaren buru».

«Horregatik, bere momentuan bailararen esku gelditu ziren lurzati bakarrak Nafarroako Gobernuari lagatzea eta, zehazki, eliza dagoen ekipamendu etarako lurzatiari ondareko ondasunaren kalifikazioa ematea, Nafarroako Gobernuari 20 urtez lagatzeko, bailararen interesen kontrako ekimena», iruditzen zaio Geroa Baiari.

Geroa Baiaren iritziz, «bailarak, hasieran aurreikusitako bezala, lurzati hau gorde behar du eta lurzati honetarako aurreikusitako diren aktibitateen martxan jartzea bere gain hartu beharko luke».

KIROLA → OHOREZKO B MAILARAKO IGOERA FASEA JOKATZEKO AUKERA IZANEN DU ORAIN

Euskal Liga irabazi du Menditarrak BRT errugbi taldeak

Apirilaren 5ean errugbi taldearen aldeko gaupasa eginen da Larraintzarren

TTIPI-TTAPA

Menditarrak BRT Baztango Rugby Taldeak ez zuen hutsik egin ligako azken partidaren. Garaipena aski zuen martxoren 22an zaleek bete zuten Lekarozko zelaian Euskal Liga irabazteko eta 27-7ko emaitzarekin menpean hartu zuen Atletico San Sebastian.

Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Errioxako taldeak biltzen dituen liga honetako irabazle izan da Menditarrak BRT taldea. Jokatutako bederatzigarthi partidetatik zortzi irabazi ditu. Euskal Ligako lehen postua eskuratuta, Ohorezko B mailarako igoera fasea jokatzeko eskubidea ere irabazi



ARGAZKIA: JUAN ANGEL PEROTXENA

Menditarrak BRT taldea bikain dabil sasoi honetan.

du Menditarrak BRT taldeak, estatuko errugbi-ko bigarren mailan aritzeko, hain zuzen ere.

GAUPASA LARUNBATEAN

Bere biziraupenerako hitzordu garrantzitsua du Menditarrak BRT taldeak apirilaren

5ean. Hain zuzen, urteroko Larraintzarren antolatzen duen gaupasa. Aurten hamekagarren aldi antolatu du.

20:00etan karpa irekiko dute eta Oharkabe taldearekin dantzaldipoteoa hasiko da. 21:30ean hasita, fron-

toian afaria eginen dute eta aretzea dastatzeko aukera izanen da. Afalondoan kantu zaharrak eta bertzelako sorpresak ere izanen dira. 00:30etik aitzinera gaupasa izanen da frontoian Trikidantz taldearekin eta ondotik DJak ariko dira. Besta ez da frontoira mugatuko. Izan ere, ordu berean hasita kanpoan paratutako karpan kontzertuak izanen dira. Ufestuek talde baztandarrarekin batera, The Baserritars eta Txarraos Txilapastrosos taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Hauen ondotik, DJ Purinek hartuko du lekukoa.

Afarirako txartelak salgai daude. 380 txartel atera dituzte eta Baztanen Futbolin, Intza eta Txokoto ostaluetan erosi daitezke eta Ultzaman Iraizozko, Deskarge eta Autzako ostaluetan. Apirilaren 1era arte egonen dira salgai. Afaria eta bono-laguntzaren truke 25 euro ordaindu beharko dira eta bono-laguntzaz gaitzak zipi euro.

FLASH

Opera ongintzako kontzertua

Etnografia Museoko Lagunek Elkartek eta Casino Círculo de la Unión Elkartek antolatuta opera ongintzako kontzertua izanen da apirilaren 5ean 20:00etan Elizondoko parrokiaren sarrera 5 euro kobratuko da.

Bertso musikatuak Beiraren eskutik

Gitarra eta ahotsa bidelagun, kontzertu goxoa eskainiko du Beirak apirilaren 6an, 19:00etan Arizkunenean. Jon Martin bertsolariak landutako letrak eta Igor Arruabarrena musikariak goxatuta doinuak uztartzen ditu oholtzan. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako emanaldia da.

Helduentzako antzerkia Iruritan

Ramon Agirre eta Inaxio Tolosa aktoreen *Kolakola eta barea* antzez-lana ikusgai izanen da apirilaren 13an, 19:00etan Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Bi aktoreek euskal kulturaren iragana eta oraina aztertuko dituzte, Ez dok Amairu taldea berriro osatzeko helburuarekin.

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

libreria
nafarpres
liburudenda

ttipi txartela

%10eko
DESKONTUA
liburu eta
ikasmaterialetan, testu liburuak
eta DVDak izan ezik

Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAI AIREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE**
abokatuak

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → APIRILAREN 12AN

‘Nolako Baztan nahi dugu?’ hizpide eztabaida saio batean

Herritar orori
zabaldua,
Arizkunenean
eginen da
10:00etan

TTIPI-TTAPA

Tokiko garapenerako talde eragileak eztabaida saioa antolatuta du apirilaren 12an Elizondon. Goizeko 10:00etatik aitzinera Arizkunenean bilduko dira eta “Nolako Baztan nahi dugu?” galdera erantzuten saiatuko dira. Gaiari interesa duten herritarrei bertaratzeko deia egin diete, batzuen eta bertzeen ideiak elkartrukatzea baita ekimenaren helburua.

Hondakinen inguruko informazio bilerak

Baztan, Bortzirriak eta Malerrekandakinen inguruko informazio bilerak egiten aritu dira eta orain informazio saio hauen bigarren txanda egingen dute Baztanen. Horretarako apirilaren 7an hasi eta 11ra bitar-



ARGAZKIA: IRAITZ ITURRALDE

Iraitz Iturralderen argazkiak irabazi du Berroetako lehiaketa

Berroetako asteburu kulturala giro ederrean burutu da martxoaren 14 eta 15ean, jende andana hurbildu da ekitaldietara eta argazki lehiaketaren irabazlea Iraitz Iturralde izan da, behi baten eta orein baten arteko borroka agertzen duen argazki bereziarekin. Argazki lehiaketako epaimahaia Itxusi argazki elkartereko lau kidek eta herritar batek osatu zuten. Lehiaketara 51 argazki aurkeztu ziren eta epaileen erranetan «argazki irabazleak ez du bertze munduko konposizio, enkuadre, kolore... berezirik baina dokumentu eta bitxikeri moduan ikaragarri gustatu zaigu. Lehiaketarako gaia Berroeta zen eta denek dakigun bezala, Berroeta naturaz inguratutik dagoen herri bat da eta argazki honek ederki islatzen du hori. Basanimali bat etxabere batekin norgehiagoka. Batzuetan argazki hoberenak ez du zertan ederrena izan behar...».

te hitzaldiak eskainiko dituzte herriz herri.

Apirilaren 7an, astelehenean, Elbeteko eskola zaharrean eta Elizondoko Arizkunenean egingen dira saio hauek.

Elbeten goizeko 11:00etan izanen da lehenengo saioa eta bigarrena 19:00etan. Elizondon berriz, 12:00etan, 17:00etan, 18:00etan (gazteleraz) eta

20:00etan.

Apirilaren 8an, Elizondon 11:00etan (gazteleraz), 12:00etan, 18:00etan (gazteleraz), 19:00etan eta 20:00etan (gazteleraz).



Pertsonaia
Zaira LATASA

Kenpo Kaiko
gerriko beltzeko
1. DANa lortu du

Otsailaren 22an egin ziren Eskoriatzan estatuko kenpo azterketak eta elizondarrak gerriko beltzeko lehen DAN gradua lortu zuen, instruktore titulua. Aurten Iruñean kenpo klaseak ematen hasiko da Zaira Latasa.

Apirilaren 9an, Gartaingo serorategian 11:00etan eta 18:30ean eta Irurritako Gizarte Bilgunean 12:00etan (gazteleraz) eta 19:30ean, apirilaren 10ean ere ordu berean bertze saio bat izanen da Irurritan.

Apirilaren 10ean, Lekarozko eskolan 11:00etan eta 18:30ean.

Apirilaren 11n Arrazozko elkartearen bilduko dira 11:00etan eta 19:30ean. Oronozen, 12:00etan, 17:30ean (gazteleraz) eta 18:30ean.

SENAtel
Telecomunicaciones

Tel: 848 410 500

www.senatel.es

Satelite bidezko Internet instalatzaileak

Benetazko 20 mega, hilean 25,90€tik aurrera
Jarri ezazu Internet zure etxean, kokapena arazoa izan gabe



CANAL+

Gurekin abonatu zaitez
futbol guztia ikusteko
eta bi sarrera
eramango dizkizugu
Osasuna zelaian
ikusteko

Telebista antenen
instalazioak eta
konponketak

Atezain
automatikoak

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 5 ETA 6AN

Titiriteroen Topaketa eginen da aste hondarrean

Euskal Herri osoko zazpi talde ariko dira larunbat eta igandean Zugarramurdin

Margari eta Koro

Hementxe dugu bertze behin Titiriteroen topaketa. Apirilaren lehenbiziko aste hondarrean ospatuko dira Zugarramurdin, eta hau dugu programa:

LARUNBATA, APIRILAK 5

- 11:00etan Erre ke Erre taldearen eskutik haurrentzako tailerra, Museoko seilaruan.
- 13:00etan Goloka taldearen *Piratak* ikuskizuna karrikan.
- 17:30ean Colectivo Humoren *Cuentos de la buena sombra*, Museoaren auditorioan
- 19:00etan El Ten-

derete taldearen *Basoko ipuin tipiak*, eskolako plazan. Arratsaldean txalapartari eta albo-karien animazioa.

IGANDEA, APIRILAK 6

- 12:00etan Toni la Sal-en *Teleipuinak* eskolako plazan (euria egin ez gero frontoian).
- 13:00etan Azikataldearen *Barne iluna* emankizuna, Sorginen Museoan.

Pilota txapelketa

Martxoaren 22an hasi zen udako pilota-txapelketa. Hamar bikote daude, bi taldetan banatuak, eta taldetako lau bikote hoberenak sailkatuko dira hurrengo faserat. Aurten giberlerat egin du txapelketa, lehenbiziko aldiz ez baita neskarik animatu.

Urtero bezala, finala Andremari egunean jokatuko da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Zazpi txotxongilo emanaldi eskainiko dituzte asteburuan Zugarramurdin.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pilota txapelketako finala Andremari egunean jokatuko da aurten ere.

Alkerdiko ur-zikinak

Alkerdi auzoa Urdazubikoa da, baina Zugarramurdi ondo-ondotan dago. Hori dela eta, auzo honetan biltzen di-

ren ur-zikinak, Azketa aldetik jarriko diren hodi bidez, Zugarramurdi bideratuko dira, Barrantzeko azpiko be-laian dagoen depura-

dorarat. Erabaki hau ez dute udalek hartu, Nafarroako Gobernurako lan egiten duen NILSA enpresaren erabakia izan baita.

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibadin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

Landibar
tabac prêt a port restaurant superm tabac cadeaux maroquinerie

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

HERRIKO KONTSEILU ETA HERRI ETA HIRI ELKARGOETAKO BOZAK 2014 → AZKAINE, SARA ETA SENPEREKO EMAITZAK

Saran Laborde, Senperen Nousbaum eta Azkainen Fournier gailendu dira bozetan

Azken sei urtetan Sarako auzapeza izan den Labordek nagusitasunez irabazi du lehen itzulian | Senpere eta Azkainen, aldiz, bigarren itzulian erabaki dira hauteskundeak eta bietan agintaldia auzapez berriek estreinatuko dute

TTIPI-TTAPA

Herriko kontseilu eta herri eta hiri elkargoetako bozak izan dira Ipar Euskal Herrian, eta TTIPI-TTAPAK hartzen dituen Sara, Senpere eta Azkaineko datuak aztertu ditugu. Aulkiak lortzeko lehiari, herritarren partehartze handia izan da hiru herrietan, eta Saran bozak lehen itzulian erabaki baziren ere, Senperen eta Azkainen, bigarren itzuliaren beharra izan da hauteskundeak deliberatzeko, lehen itzulian talde batek ere ez zuelako gehiengo absoluturik lortu.

SARAN LABORDE NAGUSI

Aurten estreinakoz, zerrenden alde bozkatu dute Saran, eta ez orain arte bezala pertsoneri. Baina saratarrek garbi utzi dute zein nahi duten Herriko Kontseiluan ordezkari. Jean Baptiste Laborderen Sara Zain taldea nabarmen izan da garaile botoen %75,63rekin. Bozetara aurkeztutako bigarren taldeak, Mixel Guerendiainen Har Hitza, botoen %24,37 eskuratu ditu.

2008tik auzapeza izan den Labordek eta bere taldeak lehen itzulian nagusitasunez irabazi zuten, ez zen bigarren itzu-

BOZAK AZKAINE, SARA ETA SENPEREN

Saran Laborderen taldea aise gailendu da lehen itzulian. Senperen, ustekabeen, Pierre Marie Nousbaumek irabazi ditu hauteskundeak. Azkainen Jean-Louis Fournierren Denen Geroa nagusitu da.

lirik behar izan eta bere taldeak eskuratu ditu herriko kontseilurako jokoan zeuden 23 hautetsietatik 21. Bertze bi hautetsiak Har Hitza taldearentzat izan dira.

AZKAINEN EZUSTEKOA

Jean-Louis Fournierren Denen Geroa taldeak irabazi ditu hauteskundeak. Eta beraz, azken urteotan auzapez izan den Altxa Azkaine taldeko Jean Louis Laduchek ez da auzapez izanen, eta are gehiago, lehen indarra izatetik laugarrena izatera pasatu da. Emaidza horiek Pierre Clausell Altxa Azkaine taldetik atera eta Ur Ertsi Larrun talde propioaren zerrendaburu aurkeztu izanaren ondorio izan daitezke. Izan ere, Clausell axuanta gisa La-

ducheren ondoan egondakoa da, baina 2013ko udan taldetik ateratzea erabaki zuen. Hala, hauteskunde hauetan botoak banatu egin dira bi talde hauen artean. Ez hori bakarrik, Denen Geroa taldea indartsu agertu da, boto kopuru altua eskuratu. Anita Lacarraren Ideki taldea hirugarren indarra izan da. 2008an baino boto gehiago eskuratu ditu, baina lehenbiziko itzulitik bigarreneira boto batzuk galduz.

SENPEREN SORPRESA

Ustekabeen, azken hiru agintalditan nagusigoa izan duen Elgarrekin taldeak agintea galdu du eta Pierre Marie Nousbaumen Agir Autrement taldeak irabazi ditu bozak. Lehen itzulian Elgarrekin taldea gailendu zen, Dominique Idiart zerrendaburu zela eta aurreikuspenek auzapeza bera izanen zela zioten. Baina bigarren itzulian Nousbaum nagusitu da 87 botoko aldearekin, eta beraz, berak eskuratu du aginte makila. Jean François Bederederen Senpere Bai taldeak ere bigarren itzulian lehenbizikoan baino 117 boto guttiago eskuratu ditu eta aulki bat galdu du herriko kontseiluan.

PARTEHARTZE ALTUA

2008ko joerari jarraituz, Saran, Senperen eta Azkainen partehartzea handia izan da. Saran %79,97koa izan da (2008an %77,10koa izan zen), Senperen %76,87koa (2008an %76,73) eta Azkainen izan da hiru herrietan altuena, %80,54koa (2008an %79,70).

AZKAINE

Zentsua: 3 556
Hautetsiak Herriko Kontseiluan: 27
Hautetsiak Hiri Elkargoan: 3

Jean-Louis FOURNIER
(Denen Geroa)



BIGARREN ITZULIKO EMAITZAK

Denen Geroa (J. L. Fournier)	1 335 boto	%47,44	20
Ur Ertsi Larrun (P. Clausell)	581 boto	%20,64	3
Ideki (A. Lacarra)	507 boto	%18,01	2
Altxa Azkaine (J. L. Laduche)	391 boto	%13,89	2
Partehartzea	2 864 boto	%80,54	
Abstentzia	692 boto	%19,46	
Zuriak eta baliogabeak	50 boto	%1,75	

LEHEN ITZULIKO EMAITZAK

Denen Geroa (J. L. Fournier)	1 182 boto	%42,20
Ur Ertsi Larrun (P. Clausell)	575 boto	%20,53
Ideki (A. Lacarra)	523 boto	%18,67
Altxa Azkaine (J. L. Laduche)	521 boto	%18,60
Partehartzea	2 870 boto	%80,71
Abstentzia	686 boto	%19,29
Zuriak eta baliogabeak	69 boto	%2,40

Hiri Elkargoko ordezkariak: Jean-Louis Fournier, Bénédicte Luberrriaga eta Pascal Peyreblanque.

SENPERE

Zentsua: 4 501
Hautetsiak Herriko Kontseiluan: 29
Hautetsiak Hiri Elkargoan: 4

Pierre Marie NOUSBAUM
(Agir Autrement)



BIGARREN ITZULIKO EMAITZAK

Agir Autr. (P. M. Nousbaum)	1 542 boto	%45,27	22
Elgarrekin (D. Idiart)	1 455 boto	%42,71	6
Senpere Bai (J. F. Bederede)	409 boto	%12,00	1
Partehartzea	3 460 boto	%76,87	
Abstentzia	1 041 boto	%23,13	
Zuriak eta baliogabeak	54 boto	%1,56	

LEHEN ITZULIKO EMAITZAK

Elgarrekin (D. Idiart)	1 389 boto	%43,69
Agir Autrement (P. M. Nousbaum)	1 264 boto	%39,76
Senpere Bai (J. F. Bederede)	526 boto	%16,55
Partehartzea	3 295 boto	%73,21
Abstentzia	1 206 boto	%26,79
Zuriak eta baliogabeak	116 boto	%3,52

Hiri Elkargoko ordezkariak: Pierre-Marie Nousbaum, Sandra Lissardy, Benoît Estaynou eta Dominique Idiart.

SARA

Zentsua: 1 967
Hautetsiak Herriko Kontseiluan: 23
Hautetsiak Hiri Elkargoan: 3

Jean-Baptiste LABORDE
(Sara Zain)



Sara Zain (J. P. Laborde)	1 133 boto	%57,63	21
Har Hitza (M. Guerendiain)	365 boto	%24,37	2
Partehartzea	1 573 boto	%79,97	
Abstentzia	394 boto	%20,03	
Zuriak eta baliogabeak	75 boto	%4,77	

Hiri Elkargoko ordezkariak: Jean Baptiste Laborde, Marie Hélène Oronoz eta Henri Dutournier (Sara Zain).

GIZARTEA → LEHEN ITZULIAN DOMINIQUE IDIART-EN ZERRENDA IREKIA IZAN ZEN BOZKATUENA

Auzapez berriak hurbiltasuna eta pazientzia izatea espero du Bessonart-ek

Bigarren itzulian erabaki da

Franck DOLOSOR

Senperetik auzapez berria du baina lerro hauek idatzi zirelarik ez zen bere izena ezagutzen oraino martxoaren 30eko bigarren itzulian ez baitzen egina. Izan ere, martxoaren 23ko lehen itzulian nehork ez zuen gehiengo osorik erdietsi Senperen. Lehian ziren hiru zerrenden artean Dominique Idiarten zerrenda idekia izan zen bozkatuena %43,6 eta 1389 boz lortuta, hau da 2008an baino 9 puntu gutiago eta 193 boz gutiago. Bigarren tokian Pierre Marie Nousbaumen zerrenda idekia sailkatu zen %39,67 eta 1264 bozekin, duela sei urte baino 7,8 puntu gehiago eta 308 boz gehiago eskuratuta. Azkenik, Jean François Bedereden ezker abertzalearen zerrendak ere emaitzak hobetu zituen 64 boz



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2001. urtetik auzapez izan da Christine Bessonart.

